

Barrena

— ESPAINIAKO ERREGE KOPAKO FINALA —

**Reala hauspotzera
Sevillara joan diren
realzaleen ilusioa,
debarrendarren
ahotan / 2-6**

— INGENIARITZA —

**"Gero eta
emakume
gehiago
ikusten dira
automobilgintzan"**
/ 25

**Ibone Mancisidor
Etcheverry**
Formula Student Bizkaia
proiektuaren arduraduna



FORMULA STUDENT BIZKAIA



Korrikalariak, ahalegin betean, iaz.

**500 bat korrikalari lehiatuko dira
bihar Mendaroko Kilimon Trail
lasterketan; tartean, 202 debarrendar**

**Euskal Koparako proba puntuagarria izango da aurten;
eta kadete eta junior mailetan, Euskal Herriko Txapelketa / 7**

IOSU JUARISTI

— KALEKO ARTEA —

**Deba ibai ondoko jolasak mural
bihurtu dituzte Sorraluzen**

Udane Juaristi Ibañez 'Udatxo' artistak sortu du murala,
Txurrukeneko azken etxeko paretan / 22



UBANE MADERA ZANGITU

— KIROLA —

**Haur eta heldu,
700 bat lagunek
parte hartuko dute
Elgoibarko Jose
Gurrutzaga krosean / 11**

— LITERATURA —

**Txabi Arnal
ermuarraren 'Diez
gatos aburridos'
ipuineko ilustrazioak
sartu dituzte / 19**



7 jatetxe - 7 menu

65€

Apirilaren 10etik 30era

**Urgain · Salegi · Trabakua ·
Belaustegi · Hiru Bistro · Baratze · Pikua**

Menuak



**Debarrena
GOURMET**



Debabarreneko realzaleak, Sevillara bidean

Milaka zaleren babesa izango du bihar Realak Atletico Madrilen kontra jokatu duen Espainiako Errege Kopako finalean

Debabarrena ELGOIBAR

Futbola gustatu edo ez, bihar-ko Espainiako Kopako finalak inor gutxi harrapatuko du ezustean, azken egunotan beste gairik ez da eta inguruotan. Realak Gipuzkoako alkate guz-

tiak gonbidatu ditu Sevillara eta Gipuzkoako Futbol Federazioak astebururako iragarritan zeuden partidu guztiak utzi ditu bertan behera, futbol eskolakoak barne. "Zaleei finalaz gozatzeko aukera emateko"

hartu du erabakia Federazioak. Atletico Madrilen kontra jokatu du finala Realak, Cartuja estadioan, eta 1987koa errepikatzeke aukera izan dezakete txuri-urdinek. Duela 38 urte Kopa irabazi zuten, finalean

Atletico Madrili irabazita, eta aurrez, finalerdietan, Athletic mende hartuta. Ez dute ahazteko realzaleek. Azkeneko Kopa, berriz, 2021ean irabazi zuen Realaren gizonzkoen taldeak, baina pandemiagatik zaleek

ezin izan zuten bertatik bertara ospatu. Bihar, historiako laugarren Kopa eskuratu dezake gizonzkoen taldeak, eta hala izango delakoan joango dira eskualdetik dozenaka lagun Sevillara.

"1987an Zaragozan izan ginen Realak Kopa irabazi zuenean, eta hura errepikatu nahi dugu"

AITOR GALARRAGA ETA JON LIZARRALDE ELGOIBAR

Aitor Galarraga eta Jon eta Ibon Lizarralde aita-semeak elkarrekin joango dira Sevillara, eta bidaia berezia izango da haientzat.

1987an Zaragozan izan ziren Aitor eta Jon, Realak Kopa irabazi zuenean. Orduan ere, Athleticen kontra irabazita sailkatu zen finalerako, eta, hain justu, Atletico Madril izan zuen aurrez aurre txapelketako azken partiduan. Realak irabazi zuen, eta orduko bizipenak errepikatu nahi dituzte. 39 urte pasatu dira orduetik, eta atzo izan balitz bezala gogoratzen dute nola antolatu zuten Zaragozarako bidaia. Aitor eta Jon BBBko (BUP) hirugarren maila egiten ari ziren institutuan, eta Aitorren anaia Jon, urtebete zaharragoa, UBI (COU): "Ostegun goiza zen, eta bezperan lortu zuen Realak finalerako sailkatzea, San Mamesen Athletic irabazita. Euskarako eskolan geunden, Andres Alberdirekin, eta atea jo zuten. Ireki zuen atea irakasleak, eta nire anaia zen, nitaz galdezka. Urduri jarri nintzen, etxean zerbait gertatu zela pentsatu nuen. Kanpora irten eta esan zidan jolas-orduan zerrenda bat egin behar nuela nire kurtsoan Realaren finalera joateko interesa zutenekin. Hura arduratuko zela beraren mailakoekin, eta autobusa antolatuko genuela Zaragozara joateko". Lasaitu ederra hartu zuen etxean ezer txarrik ez zela gertatu jakin zuenean, eta ilusioz ekin zion anaiak emandako lanari.

Beste garai batzuk ziren: 1987a zen; ez zegoen Internetik, ez sakelako telefonorik ere. Beraz, zerrenda koaderno batean egin zuen, izen-abizenak eta bakoitzaren etxeko telefonoa jasota. Zabalkundea ahoz aho egin zuten, eta uste du jarri zutela oharren bat *El Diario Vasco*-n, haren etxeko telefono-zenbakia jarrita, baina ez dago segurua: "Kalean ere geratzen ninduen jendeak izena emateko; gaur egun, horrelakorik ezingo genuke imajinatu ere egin". Galarragak gogoratu du bere anaia izan zela hura guztia antolatzearen arduradun nagusia, eta hari esker dena ondo baino hobeto irten zela.

Autobusa osatzeko jendea uste baino errazago batu zitzairen, eta ondorengo pausoa partidarako sarrerak eskuratzea zen. Gaur egun, dena online egiten da, eta oso antolatuta dago guztia, baina 1987an horrelako kontuak egitea ez zen erraza. Hala ere, ondo baino hobeto moldatu ziren 16 urteko gazte haiek. Aitorren aita garraiolaria zen, eta ama errekadista lanetan ibiltzen zen. Garai hartan, jendea ez zen gaur beste mugitzen, besteak beste, garraio publikoaren zerbitzua urria zelako, baina burokrazia kontuak Donostian egiten ziren gehienak: Trafikoko kontuak, Gizarte Segurantzakoak eta baita arropa konponketa asko ere, eta mandatu haiek guztiak hartzeaz arduratzen zen Aitorren ama: "Gorostiza dendan zeukan txoko bat gure amak, eta han jasotzen zituen herritarren enkarguak. Gero, Donostiara bidaltzen zuen, autobusez, eta han jasotzen zuen maleta beste errekadista batek, Elgoibarko egitekoekin".

Egiteko berezia jaso zuen egun batean Donostiako errekadistak. Diru mordoxka bat bidali zuten Elgoibartik maletan, Realaren Kopako Finalerako sarrerak erosteko, eta egindakoa bete zuen emakume hark: "Paseo Arbol de Gernika kalean zegoen orduan Realaren bulegoa, eta hara bidali genuen errekadista, autobuserako izena eman genuen guztiontzako sarrerak erostera. Ez omen zegoen jende askorik ilaran, eta ordu erdi-edo egon omen zen zain. Sarrera guztiak erosi eta berriz maletan sartuta bidali zizkigun Elgoibarrera. Uste dut entrega nire aitaren bitartez egin zuela, kamioian".

Iritsi zen finaleko eguna: ekaina zen, amaiera aldera, eta partida nahiko berandu izan zela gogoratzen du Aitorrek. Egun-pasa joan ziren Zaragozara; goizean irten ziren Elgoibartik eta eguerdi alderako iritsi ziren. Giro ezin hobean pasatu zuten eguna, eta futbol-zelaira



Goian: Juan Karlos Larreategi, Jon Galarraga (†), Edu Uribe, Lutxi Arregi, Abel Irizar, Alberto Etxabe, Mikel Etxeberria, Iban Esnaola. Makurtuta: Jon Lizarralde, Endika Gonzalez, Manu Izagirre eta Aitor Iriondo.

joan ziren. Bi pankarta prestatu zituzten: batean *Elgoibar* jartzen zuen eta bestea Jugoslaviako bandera bat zen. Finalaren aurretik Espainiako eta Jugoslaviako selekzio gazteen arteko partida zegoen: "Jokalariak ere harrituta zeuden nola animatzen genituen ikusita! Gola sartu zutenean, gu geunden ingurura etorri ziren ospatzera".

Finala bizi-bizia izan zen, eta Realak irabazi zuen: "Txiki Begiristainek gola sartzen dueneko irudietan oso argi ikusten da *Elgoibar* kartela". Pozaren pozez itzuli ziren autobusera, eta irri eta kantu artean hartu zuten etxerako buelta. Halako batean, baina, konturatu ziren bat falta zela autobusean: Manolo. "Ez pentsa kezkatu ginenik. Han hasi ginen denok kantuan, *ez gaude denok, Manolo falta da!*". Umorez gogoratu du anekdota: "Gure txoferra nahastu egin zen bidean, eta tunel batean geratu ginen kateatuta, pasa ezinik. Azkenean, Manolo gu baino lehen iritsi zen Elgoibarrera, Azkoititik joandako autobusen batean sartuta".

Aurten, Sevillan

1988an ere sailkatu zen Reala Kopako finalerako, eta Bartzelonaren kontra jokatu zuen, Madrilen. Aitorrek esan du faborito nagusia Reala zela; izan ere, urte hartan Bartzelonak oso denboraldi txarra egin baitzuen: "Realak 5-0 irabaziko zuela pentsatzen joan ginen". Bartzelonak, baina, gol bat sartu, eta irabazi egin zuen. Gainera, poliziarekin arazoak izan zituzten, eta handik burumakur itzuli ziren; beraz, 1987koa errepikatu nahi dute Sevillan. Jon Lizarralde lagunarekin eta haren seme Ibonekin joango da. Lizarralde ere ilusioz dago: "16 urte nituen Zaragozan Realak Kopa irabazi zuenean, Ibonek gaur egun daukan adin bera, eta finala talde beraren kontra irabazi genuen. Ez dut uste horrelakorik bizitzeko beste aukerarik izango dugunik, batetik, Reala beste final batera iristea zaila izango delako, eta, iritsita ere, semeak lagunekin joan nahi izango duelako. Oso berezia izango da".



"Historikoa izango da finala, eta realzaleak izanda ezin genuen hutsik egin"

GORKA GONZALEZ, ISAAC MANCEBO, IMANOL ETXEBERRIA, DAVID HERNANDEZ ETA ANDER URAIN MENDARO

Gorka Gonzalez, Isaac Mancebo, Imanol Etxeberria, David Hernandez eta Ander Urain mendarorak gaur goizeko zazpitan ziren Donostiatik Sevillarantz irtetekoak, autobusez. *Euskal Herria jaiak* enpresak antolatu duen bi planetako batera batu dira, eta autobusean egongo dira une honetan, Euskal Herriko beste herri batzuetako dozenaka realzalerekin batera. Herriko gazteagoen bidez jakin zuten enpresa hori autobusak antolatzea zela finalerako, eta haiekin harremanetan jarri ziren.

Bi plan zituzten aukeran: bata, ostiral gauz irten eta partida amaitzeaz batera itzultzea, eta bestea, aukeratu duten hau: ostiral goizean irten, bi gau etxetik eramandako dendetan igaro kanpin batean eta domeka eguerdian hartzea itzulerako autobusa. Bigarrenaren alde egin zuten. 210 euro ordaindu ditu bakoitzak, eta zerbitzuaren barruan sartzen zaie kanpinetik Sevillarako joan-etorria autobusez egitea ere, 30 bat

minutuko bidea. "Modu onean" lortu dute bidaia antolatzea. Sarrera eta guzti doaz Sevillara, bakoitzak 140 euro ordainduta partida zuzenean ikusi ahal izateko. Realak egindako zozketan egokitu zitzaizkien sarrerak. Hiru dira izatez Realeko bazkide, baina bosteko taldean eman zuten zozketarako izena, beste bi bazkideren txartelak erabilia, eta denei egokitu zitzaizen saria. Aurrenekoetan sartu ziren, gainera, eta horri esker sarrera aukeratu ahal izan dute. "Baztertu egin ditugu merkeenak, ikuspen gutxiko lekurako zirelako, eta, azkenean, 140 bat eurokoak erosi ditugu. Finalerako sailkatu ginen momentuan bertan erabaki genuen Sevillan egon beharra geneukala bihar, 2021 ean pandemiak behar bezala ospatzea eragotzi zigun Kopako ahozapora gazia kentzeko". Oraingoan ere badu, baina, gazitik egunak; Urainentzat, bederen. "Mendaron Kilimon Trail mendi lasterketa jokatu da bihar, eta ni izena



Isaac Mancebo, Gorka Gonzalez, Ander Urain eta David Fernandez realzaleak, Mendaron. Gaur goizean ziren abiatzekoak Sevillara, autobusez.. PROTAGONISTEK EUREK UTZITAKO ARGAZKIA

emanda nengoen lasterketa luzerako. Sasoi onean nago, ondo entrenatuta nengoen, eta bete-betean egun berean

tokatu behar finala! Baina historikoa izango da oraingo hau, eta realzaleak izanda ezin genuen hutsik egin".



MIKEL IÑIGUEZ
DENTAL STUDIO

“ KIRURGIA MUKOGINGIBALA HORTZOIAREN ETA INGURUKO EHUNEN TRATAMENDU ESPEZIALIZATUA DA. ERRETRAKZIOAK ZUZENTZEKO. SUSTRAIAK ESTALTZEKO. ETA BAITA HORTZ ETA INPLANTEEN BABESA HOBETZEKO ERE. ”

IRRIBARRE OSASUNTSU ETA NATURALA BERRESKURATU.

ABANTAILAK:

- HORTZOI OSASUNTSUAGOA ETA BABESTUAGOA
- SENTIBILITATE GUTXIAGO
- ARAZOEN PREBENTZIOA
- EMAITZA ESTETIKO NATURALAK
- EPE LUZEKO EGONKORTASUNA



KIRURGIA

MUKOGINGIBALA



RPS: 81/25

WWW.INIGUEZDENTALSTUDIO.COM

INIGUEZ_DENTALSTUDIO

KALEBARREN PLAZA 4W. BEHEA / 20870 ELGOIBAR

616 68 03 11



"Aitarekin eta seme-alabekin joateak ilusio handia egiten dit; familian bizi dugu Realak"

EGOITZ GURRUTXAGA ELGOIBAR

Lara eta Danel seme-alabekin joango da Sevillara Egoitz Gurrutxaga, autoz. Aita Alacantetik joango da hegazkinez, eta han batuko dira. Horrez gain, Koldo Galdona koinatua Sabin eta Teo semeekin joango da, furgonetaz. Familian bizi dute Realak; JoTaSua peñako kideak dira, eta elkarrekin joaten dira partidetara. "Nire seme-alabak eta ilobak jaio zirenetik dira Realeko bazkide! Nortasun agiria egin aurretik daukate Realeko bazkide-txartela", esan du Gurrutxagak. Ilusioz daude finalerako: "Sekula ez dugu final bat bizi izan, eta

lehenengoa familian izatea pozgarria da". Finala noiz jokatu zen jakin aurretik, lau asteburutarako erreserbatu zituen apartamentuak peñako lagun batek, eta hari esker daukate orain ostatu Sevillan. Sarrerak ere lortu dituzte, eta JoTaSuako 48 zale elkarrekin egongo dira. Hiru belaunaldi elkartuko dira finalean, eta horrek poz handia ematen dio. Atletico Madrilgo ultrekin apur bat kezkatuta dago, baina espero du gatazkarik ez egotea eta dena ondo iritetea. Emaizta bat ematera ere ausartu da: "1-2 irabaziko du Realak".



Egoitz Gurrutxaga eta Koldo Galdona, seme-alabekin, Realeko jantzita. E.G.

"Pertsona asko kontaktatu eta endredatu ditut, baina, zorionez, lortu dut sarrera bat"

OIER SALEGI DEBA-TORQUAY (AUSTRALIA)

Euskal Herritik milaka kilometrora bizi den arren, Oier Salegi Ansorregik (Deba, 1980) gertu-gertutik jarraitzen du bere futbol-talde kutuna: Realak. Debarra Australian bizi da 2012az geroztik, Torquay herrian –Melbournetik ordu eta erdira–, Sarah emaztearekin eta Lorea eta Alexia alabekin. Distantzia handia den arren, aitortu du taldearekiko harremana ez dela inoiz eten: "Nahiz eta urrun bizi, taldea jarraitzen dut".

Zaletasuna ume-umetatik datorkio. "Realak betidanik izan da nire taldea", dio, zalantzarik gabe. Eta futbola ere betidanik bizi izan duela erantsi du: "Futbola betidanik izan dut gustuko. Debako Amaikak Baten jokatu nuen, nahiz eta abila ez izan", dio, irribarre artean. Gaineratu duenez, Realak "pasioa" da harentzat.

Haren ibilbideak ere argi erakusten du Realarekiko duen harremana ez dela berria. 1994an egin zen klubeko bazkide, eta Australiara joan arte mantendu zuen bazkide-txartela; 2012a arte, hain zuzen. Harrezkero ere taldearekiko lotura ez du galdu. Partida asko irratiz entzuten ditu oraindik ere, eta egunerokoan presente dauka. Gipuzkoar askoren moduan, Realarekiko atxikimendua beste zerbait da harentzat, identitate kontu bat ia: "Gipuzkoar gehienok bezala, gure taldea hori dela sentitu izan dut beti. Kolore txuri-urdina baino ederragorik ez dago munduan, ezta Australian ere", dio, harro. Eta beste taldeekin alderatuz gero argi dauka Realak zerk egiten duen berezi. "Klub umila izan da beti, harrobia asko lantzen

eta zaintzen duena", azaldu du. Haren iritziz, horrek egiten du taldea "bakar eta berezi".

Urteetan zehar momentu gogoangarri asko bizi izan ditu taldearekin. Besteren artean, taldeak Atotxan jokatzen zueneko garaiak ditu gogoan: "Txikitan bertara joandakoa naiz". Nagusiago zela, beste hainbat bidaia ere egin zituen haren gustuko taldea ikusteko: 2002-2003ko denboraldian, esaterako, Vigora joan zen, taldea Celtaren aurkako partidaren animatzera. "Realak Bigarren Mailan egon zen urteetan ere bidaia batzuk egin genituen: Huescara, Salamancara, Soriara, Gijonera...".

Azkenekoz 2023an ikusi zuen Realak zuzenean, eta, aitortu duenez, orduan ezagutu zuen Anoeta berrituta –Reale Arena– lehenengo aldiz. Bihar, Sevillan, haren bihotzeko taldea ikusteko beste aukera bat izango du, eta aitortu du "oraindik ere sinetsi ezinda" dabilela Errege Kopako final berezia ikusteko aukera izango duelako. Milaka kilometro egingo ditu neurketa bertatik bertara bizitzeko. 15.000 kilometro pasako bidaia izango da, horrek dakartzan eskalekin eta ordutegi aldaketekin. "Melbournetik atera eta Shanghain (Txina) geldialdia egin ondoren, handik Madrilera joango naiz hegazkinez. Ondoren, tren hartu eta Sevillara abiatuko naiz".

Bidaia luzea izango bada ere, ez du zalantzarik izan bertan izan behar zuela. "Realak, zoritxarrez, ez du urtero Errege Kopako titulu bat irabazteko aukera izaten.



Oier Salegi, Lorea eta Alexia alabekin. SARAH TIMMS

Final hau, agian, bizitzan behin izango dudana aukera dela iruditzen zait, eta, horregatik, ahal izan dudana guztia egin dut bertan izateko", dio, emozioz beteta. Duela sei bat aste hasi zen guztia prestatzen, nahiz eta hasiera batean sarrerarik eskura ez izan. "Nire emaztearekin hitz egin ondoren, hark animatu ninduen bidaia egitera, halako gertaera bat behin biziko dudala esanez", dio, eskertuta. Kontu erraza izan ez bada ere, azkenean lortu du sarrera ere: "Pertsona asko kontaktatu eta endredatu ditut, baina, zorionez, lortu dut sarrera bat. Eskerrik asko, osaba Inaxio!".

Biharko partidari begira, baikor dago: "Partida zaila izango da, baina irabazteko aukera handiak ikusten ditut". Eta emaitzari dagokionez, badu iragarpena:

"2-2 eta penaltietan Realak irabazi! Irabaziz gero, Cartujan ospatuko dut lagunekin, zaleekin eta taldearekin". Sevillan giro ederra espero du, nahiz eta kezka txiki bat ere baduen: "Giro bikaina espero dut, nahiz eta Atletico Madrilgo ultrek egin dezaketarekin pixka bat kezkatuta egon, baina espero dut dena ondo joatea".

Amaitzeko, animo-mezuak bidali nahi izan dizkie finala jokatzen abiatuko diren jokalariei. "Beharbada, ez naiz ni pertsona egokiena jokalariei mezua bidaltzeko, baina ziur nago jakingo dutela dagoeneko Gipuzkoa osoko, Euskal Herri osoko eta mundu osoko txuri-urdinak –baita Australiakoak ere– animatzen izango gaituztela. *GUazen Realak!*".



Aiora Berasaluze eta Aitor ama-seekek Debako Errealaren Lagunek antolatutako autobusean egingo dute joan-etorria. PROTAGONISTEK LAGATAKO IRUDIA

"Bi final dauzkagu ospatzeko: bata irabazita eta bestea jokatzeko, baina irabazteko gogoarekin"

AIORA BERSALUZE DEBA

Debako Errealaren Lagunek Sevillara antolatu duten autobusean egingo dute joan-etorria Aiora Berasaluze eta Aitor ama-seekek, familiako beste hainbat kiderekin eta lagunekin batera. Ordu askoko bidaia izango da: gaur gauean irten, bihar goizean Sevillara iritsi, eguna bertan pasa eta gauean, partida amaitu eta ordu eta erdira, itzulerako autobusa hartzea da plana. Gustuko tokian aldaparik ez, ordea. Bidaia berezia izango da, eta ilusioz doaz taldea babestera, sarrerekin. "Realeko bazkide naiz duela 25 urte baino

gehiagotik, eta haurra, berriz, jaio zenetik. Errealaren Lagunak taldeko kide ere bagara, eta beti joaten gara Anoetara partidak ikustera. Oso pozik goaz Sevillara, disfrutatzen, hau ez da eta urtero gertatzen den zerbait", zehaztu du.

Gainera, ospakizun bikoitza izango dela kontatu du. 2021ean ezin izan zuten azkeneko Kopa ospatu, pandemiagatik, eta arantza hori kentzeko gogoz daude orain. "Bi final dauzkagu ospatzeko: bat irabazita eta bestea jokatzeko, baina irabazteko gogoarekin. Biak ospatuko ditugu bertan".

Soraluzetar aita-semeen eta aita-alaben bultzada ere jasoko du Realak Kopako finalean

JON, DIEGO, AITOR, MIKEL, IRAULTZ, MARKEL, LAIDA, HIART, AMETS ETA AITZ SORALUZE

Jon eta Markel Lizarralde, Diego eta Laida Sanchez, Aitor eta Hiart Prieto, Mikel eta Amets Alberdi eta Iraultz eta Aitz Arluziaga soraluzetarrak Sevillan izango dira Errege Kopako finalean.

Guztiak dira aita-semeak edo aita-alabak, kasua kasu. Kopako finalerako Sevillara joango diren soraluzetarren adibide bat dira; izan ere, 50 herritar baino gehiago Sevillan izango direla da aurreikuspena. Hainbat, sarrera barik, gainera.

Argazkiko lagunei dagokionez, guztiak dira Realeko bazkide eta guztiak ikusiko dute partida Cartuja futbol-zelaian, sarrerak eskuratzeko zortea izan baitute.

Batzuek, zuzenean; beste batzuek, zeharka

Argazkiko hamar lagunetatik seik Realak bazkideen artean egin zuen zozketaren bitartez eskuratu zuten sarrera; beste lau, berriz, sarrera tokatu zitzairen eta Sevillara joango ez diren bazkideen sarrerei esker joango dira. Bereziki zoriontsu daude azken lau horiek, hasiera batean sarrera barik geratu zirela pentsatu baitzuten.

Prezioak ere desberdin

Bestalde, sarrerengatik ordaindu dutena ere desberdina da. "Guk 148 euro oraindu dugu", kontatu du Jon Lizarralde. "Nik, berriz, 259", dio Aitor Prietok. "Eta guk, 133 euro", kontatu du Mikel Alberdik. Lehen biek sarrera Realaren zozketa bidez eskuratu dute eta beste lauek, berriz, beste bazkide batzuen bitartez. Hori bai, birsalmenta barik erositako zein bestelako

futbol-federazioetan erosi bako sarrerak dira guztiak; hau da, Realarenak, ofizialak.

Lau, autoz; lau, furgonetaz

Bidaiari dagokionez, hor ere bada desberdintasunik; izan ere, argazkiko hamar lagunetatik seik autoz egingo dute bidaiaren zatirik handiena, eta beste lauek, furgonetaz.

Joaten goiztiarrenak furgonetan doazenak izan dira. Okerrik ezean, atzo, eguena, abiatu ziren Aitor eta Hiart Prieto eta Mikel eta Amets Alberdi elkarrekin furgonetan. 15:00 aldera herritik irten eta gaua Caceresen pasatzeko asmoarekin abiatu ziren. "Caceresen lo egingo dugu, ohean, eta gero dutxatu; eta ondoren, domekara arte, furgonetan", kontatu du Aitor Prietok.

Bi aita-alabek uste dute Kopa ekarriko duela Realak Gipuzkoara. Emaitzari dagokionez, berriz, Aitor Prietok eta Mikel Alberdik 1-2koa nahiko lukete; alabek, berriz, gol gehiago ikusi nahi dituzte, antza, eta 2-3ko kiniela egin dute.

Meridan lo

Azken sei lagunak, aldiz, autoetan doazenak, barikuan abiatuko dira Soraluzetik.

Iraultz eta Aitz Arluziaga bariku goizean irtengo dira. Arrasatera lehenengo; hango lagun batzuekin batera joateko asmoa dute. Guztiak ere Meridan hartu dute lo-lekua, Sevillatik bi ordu pasara. Partida egunean, berriz, autobusean joango dira Meridatik Sevillara; izan ere, arrasatearrek autobusa antolatu dute Meridatik propio



Aita-semeak eta aita-alabak Ezoziko futbol zelaian elkartu ziren, Realaren kamisetak soinean, BARRENARako argazkia ateratzeko. U.M.Z.

Sevillara joateko, eta haiekin batera osatuko dute autobusa gaua Meridan pasako duten soraluzetarrak ere.

Partiduaren emaitzari dagokionez, Arluziaga aita-semeek nahiko lukete partida penaltietan erabakitzea, 1987an Realak eskuratutako lehen Kopan gertatu zen moduan. Aitzek nahiko luke bina berdintzea eta gero penaltietan Realak irabaztea, eta Iraultzek, berriz, bana berdindu eta gero penaltietan irabaztea.

Bestalde, bariku eguerdian irteteko asmoa dute Diego eta Laida Sanchezek. Soraluzeko, Bergarako eta Gasteizko zazpi lagun joango dira elkarrekin, bi autotan. Haiek ere Meridan egingo dute lo, eta lo-lekutik Sevillara arrasatearren autobusean joango dira.

Kinielari dagokionez, Laidak nahiko luke Realak irabaztea, partidaren emaitza

penaltiei esker erdietsita; haren aita Diegok, berriz, nahiago luke Realak 1-2 irabaziko balu, penaltietara ailegatu barik.

Azkenik, Jon eta Markel Lizarralde barikuan bazkalostean abiatuko dira, haiek ere Meridaraino; aita-semeak autoan doaz; Meridan egingo dute lo, gainerako lagunak moduan, eta gero, arrasatearren autobusean joango dira Cartuja ingurura. "FanZone-a Cartujatik 10 minutu ingurura dago, eta han kontzertuak eta denetik dago; beraz, uste dut hara joango garela partidua baino lehen", kontatu du Jon Lizarralde.

Lizarralde aita-semeek egindako kinielari dagokionez, 0-1eko emaitzarekin pozik legoke Jon, eta haren seme Markelek, berriz, 1-2koa gustukoago du; porretan gehien errepikatzen ari den emaitza, hain zuzen.



Realak lehen Errege Kopa irabazi zuenean Arconada atezainak erabili zuen kamisetaren erreplikarekin joango da Hernandez Sevillara. U.M.Z.

"Gustatuko litzaidake, 1987an moduan, aurten ere Kopa penaltietan irabaztea Realak"

JABI HERNANDEZ EIBAR

Realzale amorratua da Jabi Hernandez (Eibar, 1976), eta, okerrik ezean, gaur goizean, barikua, abiatu da Sevillarantz, Eibarko kuadrillako beste zazpi lagunekin batera. Lotarako leku barik desesperatuta –Extremadura hegoaldean ere begiratu zuten–, lagun batek eskaini zien etxea Sevillan, eta horri esker doaz. Sarrera barik doa Hernandez, baina "egun ahaztezin" bat pasatzeko asmoarekin. Plana da 18:00 aldera Sevillara ailegatu eta *FanZone*-ra joatea, Eibarko Realzaleak lagun-taldekoekin elkartzeko.

Arconadaren kamiseta

Realak lehen Errege Kopa irabazi zuenean –1987an, Athletic Madrilen kontra– Arconada atezainak zuen kamisetaren erreplikarekin doa Hernandez. Orduko hartan, penaltietan irabazi zuten Kopa, Arconadak hainbat jaurtiketa geratu izanari esker; eibartarraren nahia da bihar gauza bera gertatzea, oso gustuko duen Marrero atezainaren eskutik. Halaber, finalerako giltzarrapoak eta metxeroak atera dituzte, eta Realak finala irabazten badu, beste "zerbait" aterako dutela dio.



Aner Gomez Limia, aita Javier eta seme Telmorekin, Reale Arena futbol zelaian. ANER GOMEZ

"Azkenean, lortu ditugu sarrerak, eta zapatuan zelaian ikusiko dugu partidua"

ANER GOMEZ LIMIA MALLABIA

Aner Gomez Limia (Mallabia, 1985) Durangoko beste hiru realzaleekin batera joango da Sevillara. Pisu bat alokatu dute zentroan, eta bertan egongo dira barrikutik domekara. "Bazkide izan arren ez zitzaigun sarrerarik tokatu, baina, azkenean, lortu ditugu, eta zapatuan zelaian bertan ikusiko dugu partidua. Sarrerak oso garesti zeuden, baina merezi du ahalegina egitea Realarengatik. Ea oraingoan Oiartzabal kopa altxatzen ikusteko modua izaten dugun", adierazi du mallabiarrak.

Familia realzalea

Anerren lagunaren artean bera da realzale bakarra, "ardi beltza", baina familian badira txuri-urdin zale gehiago. Javier aita eta Telmo semea ere realzaleak dira, eta sarri joaten dira Donostiara Realaren partidua ikustera. "Aita jubilatuta dago, eta bi asterik behin joaten da, batzuetan Telmorekin, eta beste batzuetan hirurok joaten gara". Sevillara Aner joango da, semea "gazteegia" delako eta aitari "diru lapurreta" iruditu zaiolako.



Aurten Bai! Ermuko realzaleen lagunarteko kideak, urte hasieran elkarrekin sagardotegira egindako irteeran. ANGEL BALSERA

"Ermuan realzale asko dago, eta 50 inguru joango gara Sevillara"

ANGEL BALSERA GARCIA ERMUA

Angel Balsera Garcia (Ermua, 1973) Aurten Bai! Ermuko realzaleen lagunarteko presidentearen esanetan, zapatuan lagunarteko kide ugari joango dira Sevillara Kopako finala ikustera, "erdiak inguru", eta lagunartekoak ez diren beste

hainbeste ermuar ere bai. "Batzuek etxea alokatu dute, eta guk hotela hartu dugu ostiraletik. Autoetan joango gara, hegazkina garesti dago eta", zehaztu du. Balsarak zapatuko partidurako 1-2ko emaitza aurreikusi du Realaren alde.

Aurten Bai!

Realzaleen taldea duela 15 urte eratu zuten Ermuan. "2011n, Reala Bigarren Mailan zegoela, Jon Ansotegi eta Markel Bergara Realeko jokalariekin afaldu genuen Ermuko elkarte gastronomiko batean, eta afari

haren ostean osatu genuen lagunartea". Gaur egun, lagunartekoak 50 kide ditu, eta tarteka joaten dira elkarrekin kanpoko partidua ikustera. "Arraroa ematen du, baina Ermuan realzale asko dago", ziurtatu du Balsarak.



Oihana Kortazar, iazko Kilimon Trail luzeko irabazlea, helmugan sartzen. AINARA ARGOITIA

500 bat korrikalari hartuko ditu bihar Mendaroko Kilimon Trail mendi lasterketak

Bi proba jokatu dira, motza, 11 kilometrokoa, eta luzea, 23 kilometrokoa, eta izena emandako korrikalarien artean guztira 202 debabarrendar daude; tartean, Mendaroko bertako 34

Ainara Argoitia MENDARO

Kilimon Trail mendi lasterketa jokatu dute bihar, hilak 18, Mendaron. Hamalagarren ekitaldia izango da aurtengoa, eta, aurrekoetan moduan, bi proba izango dira aukeran: motza, 11 kilometrokoa, eta luzea, 23 kilometrokoa. 16:00etan abiatuko dira korrikalariak Herriko Enparantzatik. Lasterketa motzekoak irtengo dira aurrena, eta bost minutu geroago abiatuko dira luzekoak. Guztira, 494 bat korrikalari daude izena emanda: gizonez-

koak izango dira parte-hartzaileen %84 eta emakumezkoak, %16. Izena emandakoen artean 202 debabarrendar daude aurren; herrikoak bertakoak, 34.

Mendaroko Txirrindulari Elkarteak eta Lizarpe Mendi Klubak antolatzen dute lasterketa, Udaren eta beste babesle askoren laguntzarekin, eta urtetik urtera sona handia hartzen ari da. Aurren, Euskal Koparako proba puntuagarria izango da Kilimon Trail mendi lasterketa, eta kadete eta junior mailetan, Euskal Herriko Txapelketa –gazteen mailan 36

lagun daude guztira izena emanda: 24 mutil eta 12 neska-. Mendiko lasterketen egutegi betean lekua egina du Kilimon Trailek, eta pozik daude antolatzaileak parte-hartzaileekin. "Herriko lasterketa da gurea, herri oso baten laguntzarekin antolatzen duguna, eta parte-hartzaileen artean gero eta mendaroar gehiago ikusteak poztzen nau ni bereziki. Horrek eta emakumeen parte-hartzeak ere gora egiten jarraitzen duela ikusteak. Horixe sustatu nahi izan dugu beti, eta, emaitzetan oraindik ere arrakala handia dagoen arren, bide onetik goazela esango nuke. Inoizko mendaroar gehien izan ditugu aurren izena emandakoen zerrendan, nahiz eta horietako batzuk baja izan diren azkenean, Realak Sevillan jokatu duen finala ikustera joatekoak baitira", adierazi du Ander Zulaikak, Kilimon Trail lasterketaren zuzendari eta koordinatzaileak. Izena emandakoen zerrendan 34 dira mendaroarrak: lau lasterketa luzean eta 30 motzean. Aurren, Maite Maiora faltako da irteeran, herriko txapelketa, Pertiako Golkoan jokatu zuen Himan trail mendi lasterketan min hartu eta ebakuntzatik errekuperatzen baitago oraindik –bi ekitalditan falta izan da, bietan lesioengatik-. Baina izena emandakoen artean badira Kilimon Trail lasterketaren ekitaldi guztietan parte hartu izan duten bi lagun: Igon Manzisidor debarra eta Borja Rodriguez mendaroarra.

Espainiako Errege Koparen eragina

"Reala Espainiako Errege Kopako finalerako sailkatzeak kalte egin digu guri. Tira, kalte ez, gu geu ere realzaleak garela eta poztu egin ginela asko sailkatu zenean, baina biharamunean bertan zortzi baja geneuzkan goizeko zortzietarako. Gerora jausi dira beste batzuk ere, eta itxarote-zerrendan genituenak sartu ditugu haien lekuan. Egunean bertan lanerako izaten ditugun boluntarioei dagokienez ere igarri dugu eragina. Egun historikoa da biharkoa futbolzale askorentzat, eta, normala denez, Sevillan egon nahi izan dute urtero-urtero gure ondoan izan diren beste zenbaitek ere. Goza dezatela eta datozela koparekin etxera, poztuko gara eta! Eta egongo diren guztiei, alde zurretik, mila esker. Dena eta bi tokatu da aurren egun berean. Mendaron bertan, txirrindulari gazteen lasterketa ere jokatzeko da, industrialdean, eta estimatzeko da boluntarioek gurekiko agertu duten prestasuna", esan du horren harira Zulaikak. Izango dute, seguru, elkarren berri Sevillan direnek eta etxean gelditu direnek. Izan ere, aurren, estreinakoz, zuzenean emateko dute lasterketa, Youtuben ([youtube.com/@kilimontrail](https://www.youtube.com/@kilimontrail)). "Proba egingo dugu. Estreina aldia da, guretzat dena da berria, baina baditugu bi informatika-

ri lagun gertuan, eta saiatuko dira".

Ibilbide luzean aldaketa bat

Lasterketen ibilbideari dagokionez, aldaketa txiki bat egingo dute aurren, asfaltoan egiten den zati bat kentzeko. Ibilbideko zazpigarren kilometro inguruan mendi-bidea utzi eta asfaltoan egiten zuten zati bat, 400 metro inguru, mendian egingo dute. Gainerakoan, ez da aldaketarik izango. Lasterketa luzean 1.500 metroko desnibel positiboa gainditu beharko dute korrikalariak 23 kilometrokoan, eta 17,5 kilometroan 200 bat metroko kronoigoera jokatu dute Gaintxipia mendira. Bidean, sei anoa-postu izango dituzte luzekoak, helmugakoaz gain: Barrenkortan, Madariagan, Muutxubarrenen, Otarren, Lizarpen eta Garizurietan baserriko txabola parean. Motzekoak, berriz, bi izango dituzte, luzeko azken biak.

Parte-hartzaileak

Debabarrendarrak, herriz herri, bi probetako parte-hartzaileak batuta.

Eibar

- 28 gizon
- 7 emakume

Elgoibar

- 34 gizon
- 8 emakume

Ermua

- 19 gizon
- 1 emakume

Soraluze

- 8 gizon
- 2 emakume

Deba

- 37 gizon
- 5 emakume

Itziar

- 11 gizon
- 2 emakume

Mendaro

- 32 gizon
- 2 emakume

Mutriku

- 6 gizon

Mallabia

- 0

NIRE USTEZ

Demokrazia ari du



MANEX ASTIGARRAGA

Ez ote da ziniko xamarra besteren lurraldeen okupazio eta kolonizazio militarrean, supremazismo erlijiosoan eta apartheid egoera betiketuan oinarrituriko herrialde bat Ekialde Hurbileko demokrazia bakar gisa izendatzea? Are gehiago, pasa diren hilabeteetan Gaza, Zisjordania, Yemen, Irak, Iran, Qatar, Libano eta Siria eraso dituenean –azken bi hauetan, okupaturiko lurraldeak ugarituz–.

Inguruko etsaiez defendatzen den demokrazia bat. Hezbollak iparraldean –eurek Libanon aurrera eramandako okupazioari aurre egiteko sortua–, palestinar erresistentzia –hein batean, aurrez eurek finantzatu palestinar mugimenduak zatitzeko–... Zer ote zen lehenago, arrautza ala honen ekinbide kriminalarekiko erresistentzia?

Onartu berri duten heriotza-zigor selektiboa, akusazio gabeko espetxeratze mugagabeak, tortura sistematikoa, biztanleria zibila zigortu eta sarraskitzeko doktrina militar planifikatua,

"Iran izan da demokrazia NATOzaleen eta sionistaren azken biktima"

ekipo negoziatzaile eta kargu politikoen aurkako erasoak, debekaturiko armamentuaren erabilera eremu jendetsuetan, organo-lapurretak, laguntza humanitaria ukatzea, azpiegitura zibil kritikoen suntsiketa eta zerrendan kabitzen ez diren beste hainbat gerra-krimen.

Agian, demokrazia eredugarria izan daiteke euren etekinerako zona balkanizatu eta elkarren arteko gerran bizi diren estatu sektario ahuletan banatzeko helburu bera elkarbanatzen duten mendebaldeko herrialdeentzat. Ildo berean baitoaz azken urteotako Kubaren aurkako enbargoaren akututzea, Venezuelaren setioa eta gobernuburuaren bahiketa, narkoen aurkako gerra berriko exekuzio estrajudizialak, Al-Qaedaen oinordekoen erregimenaren inplantazioa Sirian... *Democratic way of life!*

Iran izan da demokrazia NATOzale eta sionistaren azken biktima. Negoziazio betean estatuburuak erailaz abiatu gerra batean.

Guri, kalamidade hauen guztien aurrean mobilizatzea dagokigu. Belaunikatu ez eta borrokan diren horiei babesa eman eta elkartasuna antolatzea.

Gerra inperialistari ez!

GUTUNAK

Euskara(z) gara

ELGOIBARKO AEK EUSKALTEGIA

Aurten Elgoibarri bukaera egunaren aurrekoan egokitu zitzaion euskararen aldeko lasterketa erraldoia jasotzea. Ordurako, aurreko egunetan pasatzen ari zen herrietan izandako harrera eta babesaren berri baguen, eta gurean ere hala izatea nahi eta espero genuen, eta halaxe izan zen.

Martxoaren 28an, iluntzean, etorri zitzaigun Azkaratetik eta guk Saturioraino lagundu genion. Hura jendetza, hura giroa –eguraldia ere lagun izan genuen–, hura emozioa, hura dena ondo aterako ote zen ardura... Biba parte hartu zenuten denok!

Urrutitik ikusita, AEK euskaltegian dihardugunoi sortzen digun zirrarak ez du parekorik, baina, gerturatu ahala, ezin dugu ahaztu honek guztiak aurretiko isileko lan eta parte-hartze handia eskatzen duela. Hori dela eta, era batean edo bestean lagun izan zaituztegun denoi eskerrak eman nahi dizkizuegu, baina, inor ez ahaztearren, ez dugu izenik aipatuko.

Edizio honetarako aukeratutako leloak *Euskara gara* zioen; hau da, *euskararen herria eta gara*. Hots, komunitatea. Elgoibarren ere *gu* horiek euskararen lekukoari heldu behar diogu eta erabili, horixe eginda, batek zioen moduan, "lanak eginda" leudeke eta. Batez ere, gazteok, Korrikan erakutsi duzuen grina, zuen bizimoduan ere erakutsi ez zaretela "folklore hutsa",

baizik eta herri euskalduna nahi duzuela. Nagusia den inork ez dezala pentsa bera libre dagoenik, baina motorrak gaztea behar du.

Herri euskaldun hori lortze bidean AEK euskaltegiak makina bat urtean dihardu lanean, herritarren beharrak asetzeko eskolak ematen: dela seme-alabei laguntzeko eta eurekin gozatzeko, dela lagunei ulertzeko, dela integratuta sentitzeko, dela tituluren bat lortzeko...

Mezugileek idatzi zuten moduan: *Euskara gara eta hemen gaude. Hemen gara eta euskaraz gaude. Aurrera goaz. Elgoibartarrok bazatozte? AEK euskaltegian ateak zabalik daude.*

Beste erailketa matxista bat

DEBA BAILARAKO ITAIA

Beste erailketa matxista bat Euskal Herrian. Oraingoan, Iruñean, emakume bat terrazatik erori da, urruntze-agindua hautsi zuen gizon batengandik ihesi. Beste behin, agerian geratu dira instituzioen babes-neurrien mugak, urruntze-agindua urratu baitu gizon batek, emakumea babesgabe utziz.

Azken hamabost egunetan bi emakume izan dira erailak eta erailketa saiakera bat izan da Euskal Herrian. Izan ere, egunero pairatzen dugu indarkeria matxista, eta emakume izate hutsagatik erailak gara. Agerikoa da, gainera, egunero izaten ditugula eraso berri, titularretan, gure inguruan edota gure egunerokoan.

Horregatik, batetik, matxismoa ukatzen duten diskurtso erreazionarioei aurre egiteko beharra azpimarratu nahi dugu Itaiatik; indarkeria matxista normalizatzen duen testuingurua sortzen duelako eta, hala, emakumeen aurka egiteko erasotzaileen inpunitatea areagotzen duelako. Bestetik, matxismoaren aurkako borrokara batzeko eta erailketen aurka kaleak hartzeko deia zabaltzen dugu: eraso orori aurre eginez, erasotuak izan diren emakumei beren bizitzekin jarraitzeko kalitateko bizi baldintzen alde eginez, eta erasotzaileen inpunitatearen aurka borrokatuz. Gero eta jende gehiago indarkeria matxistaren aurka posionatu dadin, batu borrokara!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). BARRENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Aita Agirre Kulturunea 3-3, 20870 Elgoibar / barrena@barrena.eus

Barrena[®]

DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea

Barrena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Aita Agirre plaza, 3
20870 Elgoibar
barrena@barrena.eus

Lehendakaria

Gaizka Azkarate.

Zuzendari nagusia

Egoitz Unamuno.

Eduki arduraduna

Ainara Argoitia.

Erredakzio batzardea

Ainara Argoitia, Ubane Madera,
Ainhoa Andonegi, Izaro
Aulestiarte.

Kazetariak

Ainara Argoitia, Ainhoa
Andonegi, Alex Turrillas, Ander
Gomez, Asier Orbea, Egoitz
Unamuno, Izaro Aulestiarte,
Nerea Bedialauneta, Ubane
Madera.

Diseinu arduraduna

Oier Larreategi.

Zuzentzailea

Sergio Azkarate.

Kidetzeta eta banaketa

Alex Turrillas.

Maketazioa

Zaloa Arnaiz, Oier Larreategi.

Publizitatea

Leire Rubio.

HARPIDETZA

Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
harpidetza@barrena.eus

PUBLIZITATEA

Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
publi@barrena.eus

DEBAKO EGOITZA

Deba 20820
Ifar Kalea 12, behe
943 19 13 83

ELGOIBARKO EGOITZA

Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 41 12

ERMUKO EGOITZA

Ermua 48260
Erdikokale 2, 1
943 17 93 50

SORALUZKO EGOITZA

Soraluze 20590
Errabal 15, 1
943 75 13 04

Lege Gordailua: LG D 993-2025

ISSN: 3101-2647

Tirada: 10.800 ale

Inprimategia: Zerua Multimedia

BARRENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Elgoibarko Udala



Ermuko Udala



Mallabiko Udala



Mendaroko Udala



Mutrikuko Udala



Soraluzeko Udala





Abdelaziz Moujane, seme Yousufekin, Plaza Barrixan. U.M.Z.

NONDIK NORA

"Gustukoen dudana hemengo demokrazia da; guztiok gara berdinak"

ABDELAZIZ MOUJANE

SORALUZeko AL-AMAL MESKITAKO PRESIDENTEA

24 urte daramatza Soraluzen bizi izaten, eta hiru urte eta erdi bertako komunitate musulmaneko presidente

Ubane Madera Zangitu SORALUZE
Abdelaziz Moujane (Tinghir, Maroko, 1983) 2002a ezker bizi da Soraluzen. Marokotik Eibarrera joan zen lehenengo, han bizi ziren arrearen eta koinatuaren etxera. Haiak Soraluzen etxea erosi zute-nean, Moujane ere eurekin joan zen bertara. Eta paperak erregulatu zituenean, arre-barenaren gaineko etxea ero-

si, eta bertan bizi da harrez-kerok.

24 urte Soraluzen; herria asko aldatu da etorri zinenetik?

Bai, aldaketak badaude. Igogailu publiko berriak daude, eta pribatuak ere bai; Ezozibidean, adibidez. Bestalde, futbol-zelaian belar artifiziala jarri zuten lur-raren ordean, etxe gutxi batzuk ere eraiki dituzte eta Eroski zabaldu dute.

Eta gizartea aldatu da?

Askok; gure komunitatea %90 aldatu da, batez ere, musulman berriak etorri direlako. Afganarrak, pakistandarrak, aljeriarrak, marokotarrak... etorri dira. 2002an bost familia bakarrik ginen.

Zergatik aukeratu zenuen Soraluze?

Nik lan egiten nuen enpresak, batik bat, Donostian, Bilbon eta Gasteizen egiten du lan. Hortaz, nik nahiago nuen erdian bizi. Ze, bestela, Bilbon bizi eta Donostiaraino lanera joan behar... Hau da Euskadiko erdigunea.

Familia ere baduzu.

Bai; Marokon ezagutu genuen elkar, eta 2011n ekarri egin nuen emaztea; gaur egun, hiru seme-alaba ditut, 3 eta 13 urte artekoak.

Zelan hartu zintuzteten Soraluzen?

Ondo. Arrebak eta koinatuak, biek lan egiten zuten, eta ez genuen laguntza ekonomikorik behar. Neuk ere, paperik ez izan arren, eskaiolista edo igeltsero lan egiten nuen, beltzean. Ez dut laguntzarik eskatu behar izan inoiz. Caritasek esan zigun ezer behar bagenuen eskatzeko, baina ez dugu ezer behar izan. Sasoi hartan, zorionez, ez zen lanik falta.

Orain ere bazabiltza lanean.

Bai. Autonomoa naiz, zaharberritze orokorrak egiten ditut.

Zaila egin zitzaizun paperak lortzea?

Nahiko zaila. Hiru urtean egon nintzen paperik gabe. 20-21 urterekin, nire arreba eta koinatua Marokora joan ziren bisitan, eta ni ezin izan nintzen joan. Egun bereziak zirenean eta eurak ez zeudenean, albokoekin ospatzen nuen, bakarrik ez egotearren.

Musulman asko etorri direla esan duzu; Soraluzera bakarrik?

Ez. Leku guztietara. Gehienak hegoaldetik datoz orain, han lan gutxiago dagoelako; egoera zaila da. Familiak datoz. Bizitza hobetu nahi dute. Soraluzen oso gustura daude; meskita ere herrian dago, eta orain ez dute joan nahi. Bestalde, ospakizunak, ramadanaren amaiera, *Eid Al-Fitr*, eta, Bildotsaren Jaia, *Eid Al-Adha*, bertan ospatzen ditugunez, familiar moduan sentitzen gara, gure herrian moduan. Nik, adibidez, urte gehiago daramatzat hemen Marokon baino.

Zenbat zarete?

170 gizon, 50 bat emakume eta 5 eta 13 urte arteko 52 ume. Horiek dira Soraluzen bizi diren musulmanak.

Zer duzu gustukoen?

Dagoen demokrazia. Kanpokoak eta bertakoak berdin tratatzen gaituzte, Udalean, eskolan... Guztiok gara berdinak.

Marokon ez?

Han apur bat desberdina da.

Zer ez zaizu gustatzen?

Badaude umeak, hemen jaiotakoak izan arren, ez dutela lortzen euskara ikastea. Eskoletan gehiago lagundu edo erakutsi beharko lukete euskara. Hemen jende pobrea dago, jatekoa behar dute eta ez dute dirurik euskara ikasteko. Hori, euskara, Hezkuntzan erakutsi beharko lukete, lehen

mailatik hasita. Euskara-errefortzuak behar dira.

Eta zer eskatuko zenuke?

Hiltegia behar dugu; batez ere, bildotsak islamak dioen moduan akabatzeko. Prest gaude fabrika bat alokatu eta, beste zenbait lekutan egiten den moduan, desmuntatu daitekeen hiltegi bat kontratatuzko. Hemendik hilabete pasara, maiatzaren azken astean hasiko da Bildotsaren Jaia. Osasun Sailak dio bildotsen odola batu egin behar dela, baina ez badugu hiltegirik hori ezin da egin. Pentsa, Soraluzen, adibidez, 130 bildots behar dira. Guk nahi dugu dena lege barruan egin, ondo antolatuta, ez orain egiten den moduan, bakoitzak ahal duen moduan.

Soraluzeko komunitate musulmaneko presidentea zara.

Bai, Soraluzeko Al-Amal meskitako elkarteko presidentea naiz, orain dela hiru urte eta erdi ezker. *Itxaropena* esan nahi du *amal*-ek. Osintxutik ere hona etortzen dira meskitara. Ramadanaren amaieran beste herri batzuetakoak ere etorri ziren.

Zein da zure funtzioa eta zein imam-arena?

Imama [Abdel Majid] zeremonia erlijiosoez arduratzen da; neu komunitateko ekonomiaz eta antolakuntzaz arduratzen naiz. Zerbait egin nahi dugunean, elkartu eta lanak antolatzen ditugu.

Adibidez?

Meskitaren beheko solairuan eskola eta sukaldea egokitu nahi ditugu. Eskola, adibidez, euskara-errefortzuak emateko.

Komunitatearen gidari bakarra al zara? Eta lan boluntarioa al da?

Zazpi pertsona gara elkartearen zuzendaritzan. Bost urtetik behin berritzen da kargua. Eta bai, lan boluntarioa da. Hautagai bat baino gehiago badago, boz-keta egiten da. Elkartean, berriz, 72 kide gaude, 18 urtetik gorakoak, denak gizonak. Lanak egiteko boluntarioak behar badira, elkartetik datoz. 2013a ezker existitzen da Soraluzeko Al-Amal meskita elkarte. **Emakumeek badute elkarerik?** Orain sortuko da, meskitaren beheko solairua egokitzen dugunean.

Meskita ere auzolanean egin zenuen, ala?

Bai. Bakoitzak ahal zuenean lan eginez. Adibidez, zapatu batzuetan 25 pertsona ere ibili izan dira lanean.

"Hiltegia behar dugu; Bildotsaren Jairako, adibidez, Soraluzen 130 bildots behar dira"

"Zerbait nahi badugu, elkartu eta lanak antolatzen ditugu; meskita auzolanean egin genuen"

Udaldirako izena emateko epea zabaldu dute Atxutxiamaikak eta Udal Ludotekak

Atxutxiamaikak HHkoentzako eskaintza prestatu du, eta Ludotekak LHkoentzat

Ainhoa Andonegi

Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaiak aisialdi taldeak eta Udal Ludotekak prest dute udaldirako programazioa, eta gaur zabaldu dute ekintzetan izena emateko epea. Maiatzaren 6ra arte dago izena emateko aukera. Eskaintza horien informazio zehatza atxutxiamaiak.eus eta elgoibar.eus webguneetan dago.

Atxutxiamaikak, HHkoentzat

Atxutxiamaikak HH2 eta HH5 artekoentzako txokoak eskainiko ditu asteleheneretik barikura, goizez, 09:30etik 13:00etara. Bi txanda jarri dituzte aukeran: lehenengoa, ekainaren 22tik uztailaren 3ra; eta bigarrena, uztailaren 6tik 17ra. Nahi izanez gero, bi txandetan izena emateko aukera ere badago. Txanda bakoitzaren prezioa 88 eurokoa da -Elgoibarko Izarrako bazkideek, 79 euro-, eta bi txanden prezioa, 166 eurokoa -bazkideek, 158 euro-.

Izena emateko bi aukera daude: online, atxutxiamaiak.eus webgunearen bitartez, eta aurrez aurre, Elgoibarko Izarrak Aita Agirre 3an daukan bulegoan.



Umeak udalekuetan. ASIER ORBEA

Maiatzaren 6ra arte dago izena emateko aukera, eta plazak hila 8an esleitu dituzte.

Ludotekaren eskaintza

Udal Ludotekak LH1 eta LH6 artekoentzako eskaintza prestatu du. LH1 eta LH3 arteko umeentzat udaleku irekiak izango dira, ekainaren 22tik uztailaren 17ra. Igerilekura eta hondartzara irteerak, tailerrak, jolasak eta egun-pasak egingo dituzte. LH4ko eta LH5eko haurrentzat ekintza bereziak antolatuko dituz-

te; besteak beste, Debako hondartzara eta Mutrikura irteerak, surf ikastaroa Zarautzen, Santa Klara uhartera bisita, arraun surfa Zumaian eta udari agurra. Azkenik, LH6koentzat egonaldia antolatu dute, ekainaren 19tik 21era, Orioko Txurruka aterpetxean.

Udalak dirulaguntzak emaniko dizkie beharra duten familiei, eta horiek eskatzeko epea maiatzaren 11tik ekainaren 11ra izango da. Informazio gehiago Herritarren Arreta Bulegoan jaso daiteke.

Sune, Kaparrak eta Puro Relajo taldeak izango dira sanbartolomeetan

A.A.

Otsailan hasi zituzten San Bartolome jaietako egitaraua prestatzeko bilerak, eta aste honetan egin dute hirugarrena. Pausoz pauso joan dira egitaraua osatzen, eta dagoeneko eman dituzte musika eskaintzari dagozkion lehenengo berriak. Hiru musika talde konfirmatu dituzte: Sune, Kaparrak eta Puro Relajo. Ez dute datei buruzko xehetasunik eman, baina hiru horiek aurtengo jaietan Elgoibarren egongo direla baieztatu du Udalak.

Hurrengo bilera, maiatzean

Maiatzean egingo dute laugarren bilera behin betiko egitaraua ixteko, eta haren ostean eman-

go dute informazio gehiago. Egitarauari buruzko iradokizunak edo ideiak egiteko aukera

ere badago; kultura@elgoibar.eus helbidera mezua idatzita edo 943 74 21 58 telefonora deituta.



Sutea. SAREA



Mari Picon, senarra zuenaren irudiarekin. AINHOA ANDONEGI

Carlos Fernandez zenaren lanak ikusgai daude Kultur Kafean

Gurutze puntuan eginiko koadroen erakusketa da, eta hilaren 26ra arte egongo da zabalik, tabernaren ordutegian

A.A.

Duela bi urte hil zen Carlos Fernandez, baina aurretik urte asko eman zituen gaixorik. 60 bat urte zituela laga zuen lana, gaixotasunaren ondorioz, eta denbora librea betetzeko zaletasun bila hasi zen. Mari Picon emazteak gurutze-puntuaren teknikarekin hasitako koadro bat zeukan, eta Fernandezek bukatu zuen lana. Uste baino gehiago gustatu zitzaion teknika hura, eta handik aurrera koadroak egiteari ekin zion. Kasualitatez deskubritu zuen teknika hura zaletasun bilakatu zitzaion, eta orduak ematen zituen koadroak egiten. Teknika horri esker josten ikasi zuen Fernandezek. Piconek arropa-denda zeukan Elgoibarraren, eta senarra jostun zereginetan hasi zen dendan, arropak konpontzen.

Hogei bat lan

Koadro asko egin zituen, eta horietako asko senideei eta lagunei oparitu zituzkien. Hala ere, Piconek lan asko zituen etxean gordeta, eta horiek erakustea erabaki du orain, senarra zuenari omenaldi moduko bat egiteko. Hogei bat lan jarriko ditu ikusgai Kultur Kafean. Lan guztiak bereziak dira harentzat, baina bereziki bat nabarmendu du, Carlos zenaren ama ageri dena: "Hori da guretzako lanik kuttunena, eta Carlosentzat ere halaxe zen. Irudian ageri den modukoa zen Carlosen ama, eta modu horretan gogoratzen dugu. Galizian ardiak zaintzen egoten zen, beltzez jantzita".

Hilaren 7an zabaldu zuten erakusketa, hain justu ere, orain bi urte Carlos hil zen egunean, eta hilaren 26ra arte egongo da ikusgai, tabernaren ordutegian.

Sakelakoaren erabilerari buruzko lan-saioa hilaren 24an

Amataumobila taldeak sakelako telefonoen erabilera egokiari buruz hausnartzeko lan-saioa antolatu du apirilaren 24rako. Telmo Lazkano (Zumaia, 1994) Altxa Burua Mugimenduko ordezkariak gidatuko du saioa, eta, besteak beste, tresnak eta estrategiak emango ditu, esku-telefonoa etxean modu egokian erabiltzeko. Adituek go-

mendatzen dute 16 urtera arte ez ematea seme-alabei sakelako telefono propioa; beraz, ordura arte zer egin daitekeen azaltzea izango du helburu jarduerak. LH4 eta DBH1 arteko umeen familientzako lan-saioa prestatu dute. 17:30ean izango da, Aita Agirre kulturguneko areto nagusian. Antolatzaileek kafea eta pastak jarriko dituzte, eta sorpresaren bat egongo dela iragarri dute. Informazio gehiago jasotzeko, amataumobila@gmail.com helbidera idatzi daiteke.

707 lagunek hartuko dute parte Jose Gurrutxaga krosean etzi, domeka

Ainhoa Andonegi

Elgoibar Ikastolak antolatuta, domekan jokatu dute Jose Gurrutxaga krosa Elgoibarko kaleetan zehar. Aurtengo edizioan hamazazpi lasterketa izango dira, eta Elgoibarko eta Mendaroko 707 lagunek hartuko dute parte. Mailaka banatuko dituzte probak, eta nork bere adinari egokitutakoan hartuko du parte.

Lehenengoak, 2019an eta 2018an jaiotakoak, 10:30ean abiatuko dira, Kalegoen plazatik. Lau taldetan banatuta, 328 metroko distantzia egingo dute korrika. Handik ordu erdira, 2017an eta 2016an jaiotakoak irtengo dira, eta haiek 609 metro egingo dituzte korrika. 11:30ean abiatuko dira 2015ean eta 2014an jaiotakoak eta ia kilometro bat egingo dute korrika: 943 metro. Azken lasterketa 2013an, 2012an, 2011n eta 2010ean jaiotako neska-mutilena izango da, 12:00etan irtengo dira eta 1.423 metroko ibilbidea osa-

tu beharko dute. 2009. urtetik aurrera jaiotakoek ere lasterketa horretan hartuko dute parte, baina haiek hiru itzuli eman beharko dizkiote zirkuituari, 3.613 metroko ibilbidea osatzeko. Aurreko aldietan bezala, HHko

umeentzako ere proba bereziren bat egongo dela aurreratu dute.

Kamiseta banaketa

Lasterketan parte hartuko dutenek 09:30etik 10:15era bitartean jaso beharko dute kamiseta.



lazgo edizioko argazkia. A.A.

'Kolapsoa' antzerkia taularatuko dute gaur Herriko Antzokian

A.A.

Jon Ander Urrestiren *Kolapsoa* antzerkia aurkeztuko dute gaur Herriko Antzokian, 19:00etan. Publizitate agentzia bateko hiru kideen ibilerak ditu ardatz obrak. "Edozer saltzeko kapaz dira, baina behar ez duzuna ere. Batik bat, behar ez duzuna saltzen dute. Despistatu, eta bi buruko koila-

ra bat salduko dizute, azkarrago bazkalduko duzula esanda. Edo ohe birakari bat, gauero estresa zentrifugatuko dizuna. Edozer. Txakurrentzako katiuskak eta arbolentzako aterkiak. Jendea Arabako Errioxan ardo urdina eskatzera iritsi zen haien karpaina baten ondotik. Azken orduko eskaera batek, ordea, han-

kaz gora jarriko du agentzia. Gauza bakar bat saltzea lortu behar dute: gehiago ez erosteko gogoa". Maite Mugerza, Txubio Fernandez de Jauregi eta Jon Ander Urresti izango dira protagonistak, eta obraren soinu-banda egin dutenetako bat Iban Urizar *Amorante* elgoibartarra da.

Sarrerak herrikoantzokia.eus webgunean eros daitezke, eta, online agortzen ez badira, txarteldegian bertan ere egongo dira salgai, antzerkia hasi aurretik.



Ikuskizuneko irudi bat. INTERNET

Porrotx eta Marimotots Herriko Antzokian izango dira hilaren 24an

'Zerua lapurtu dute' ikuskizunaren bi emanaldi egingo dituzte: 17:00etan bata eta 19:00etan bestea

A.A.

Porrotx eta Marimotots pailazoak Elgoibarko Herriko Antzokian izango dira gaur zortzi, hilaren 24an. *Zerua lapurtu dute* izeneko ikuskizuna taularatuko dute, eta bi saio egingo dituzte: 17:00etan lehenengoa eta 19:00etan bigarrena. Sinopsiak honela dio: Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore kezkatuta daude, ez dituztelako izarrak ikusten, eta zerua lapurtu egin dietela pentsatzen dute. Birtxi farozainaren laguntzarekin saiatuko dira urdin infinitura bidaiatu eta izarrak

berreskuratzen. Azken batean, urrunerako bidaiari proposatzen dute, barrura begira jartzeko.

Sarrerak salgai

Sarrerak salgai daude dagoneko, eta erosteko bi modu daude: batetik, online bidez eskuratu daitezke, herrikoantzokia.eus webgunean, baina, horrez gain, zapatuetako zinema-emanaldietan txarteldegian erosteko aukera egoten da, 19:15etik 21:30era. Sarrerak agortzen ez badira, emanaldia- ren egunean bertan ere erosi ahal izango dira, leihatilan.

EXPRESS ESKAINTZAK!

CANDI CH63DCC BITROZERAMIKA PLAKA

219 €

- Taktikal diren 3 kontrol eremu
- Eremu handiak, 30 zm-koa
- Segurtasun-blokeatzeko botoia

MILAR BIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487
bi@milar.es
 Dendako prezioak. Produktuak agortu arte

LAGUNAK
 kolaboraria testil bagei

Ba al duzu konpondu beharreko arroparik?

Ekarri, eta berri-berri utziko dizugu, zeure neurrina. Jantzigintzarako makina bereziak ditugu, edozein ehun konpondu ahal izateko: Puntuzko ehunak, tximindularitzako malotak eta kuloteak, larrea, zeta eta aber luze bat.


Komertzioekin lan egiten dugu
 (etxeko ehungintzeekin ta jantziekin) **TARIFA BEREZIAKI!**

San Roke kalea, 20 - ELGOIBAR - 943 744 457 / 685 756 978
www.textillagunak.com

Zabalik dago dantza udalekuetan izena emateko epea

Dantza udalekuetarako izena emateko epea zabalik dauka Birakak. Bi asteko bi txanda jarri dituzte aukeran: lehenengoa ekainaren 29tik uztailearen 10era izango da; eta bigarrena, uztailearen 13tik 24ra. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, 669 55 83 81 telefono-zenbakira deitu edo idatzi daiteke.

NIRE USTEZ

Informazioaren manifestu bat edo**IKER LAUZURIKA**
ZUZENBIDEKO
DOKTOREGAIA

"Kaixo, Chat; orain arte esan dizudan guztia kontuan hartuta, zer alderdi bozkatu beharko nuke hurrengo hauteskundeetan?"

Herbehereetako eta Danimarkako azken hauteskundeetan hiritarrek beren botoa adimen artifizialaren esku utzi ez dezaten eskatu behar izan dute adituek. Besteak beste, erakutsi da tresna horiek polarizazioa sustatu eta tokiko alderdiak ezkututzen dituztela.

Badut konbikzio bat gaur inoiz baino argiago dugula informazioa ez dela sekula neutrala. Badakigu informazio orok alderdi bat edo beste erakutsiko duela eta iritzi batzuk lehenetsiko dituela besteen gainetik. Are gehiago, badakigu hedabide handietako edota plataforma digitaletako interesak zeintzuk diren, eta informazio bat alboratzen dutenean zer asmorekin egiten duten.

Eta kontziente izanagatik ere, ez dugu gure jokabidea aldatzen. Goizean hedabideetako berriak irakurtzea edota galdera konkretuak adimen artifizial gabe bilatzea boomer-en gauza bilakatu da

jada. Gazteok nekez irakurtzen dugu BARRENA osoa, eta astean behin berriren bat partekatuz asetzen dugu gure aktibismoa.

Ez naiz ni izango inori irakaspenik emango diona.

Badakidana da gurpilean jarraituta dagoeneko bagoazela norabide konkretu batean.

Narratiba liberaleri hedabide lokalen sustapena, *open source* sareen zabalpena edota aurrez aurreko eztabaidak aurrean jartzen ez badizkiegu, haien informazioz itoko gara. Eta, orduan, Chat-ek erabakiko du gure herri politika.

KLIK

Zapatagilea**JOSE RAMON CABRERA**
ARGAZKILARIA

Zapatagile hau hainbat azokatan ikusi dugu; Deban eta Elgoibarren, esaterako. Irudi horretan, ofizio tradizional baten nostalgia eta TLR kamera retro baten teknikak nahasten ditugu. Teknika digitalen eta antzinako artisautzaren konbinazioak irudi nostalgiko eta emozionalki oihartzun handikoak sortzen ditu. Modernoa eta zaharra, nahasketa paregabea.



SEMAFORO

Egoera bat, bi jokabide

"Bi egoera antzerakoren aurrean Elgoibarko Udalak izan dituen jokabide desberdinak aipatu nahi nituzke. King-Kong autobus geltokian jarlekuak jarri dituzte, baina ez dago estalperik. Markesina txikiegia da, eta euria egiten duen egunetan alferrik daude jarlekuak, bustita egoten direlako. Jende asko pilotzen da geltoki hartan ordu jakin batzuetan, eta markesinatik kanpo egon behar izaten dute, euripean, autobusaren zain. Toletzeko tren-geltokian, bestalde, estalpe ederra egin dute, baina ez dute jarlekurik jarri. Akaso, oraindik amaitu gabe egongo dira obrak, baina, bestela, ondo egongo litzateke jarleku batzuk jartzea".

Realzaleak, giroa berotzen

"Txalo bat eman nahi diet egunotan balkoiak apaingarri txuri-urdinekin atondu dituzten herritarrei. Zapatua egun handia izango da realzaleontzat. Askok joango dira Sevillara, baina beste asko hemen geratuko gara, eta herritik emango diogu babesa taldeari. Polita da bizitzen ari garena, eta balkoiak horrelako dotore ikusteak poza ematen du. Aura Realta eta aupa Elgoibar".



EH Bildu kezkatuta dago Errezabal egoitzaren obrak eteteko eskaeraren harira

Ainhoa Andonegi

Errezabal egoitzaren obrak pitzadurak eragin zituen Urazandiko eraikin batzuetan eta errepedean, baina obrek aurrera jarraitu zuten. Kontrol-neurri berriak jarriko zituztela eta pitzadurak egiazta-zeko beste azterketa bat egingo zutela adierazi zuten enpresak eta Udalak, baina enpresak lanen aldi baterako etenaldia eskatu du, Bilduk esandakoaren arabera, "hasieran egin zituen azterketa geoteknikoak egokiak ez, eta berriak egin behar dituelako". EH Bilduk obra hori bertan behera uztearen alde bozkatu zuen martxoko osoko bilkuran, auzotarren eta auzoko lurren eta eraikinen segurtasuna bermatzeko, eta eskatu zuen enpresa eraikitzaileak eta Udalak sinatutako etete-aktan puntu hauek jasotzeko, EAJ-PSEren proposamenen aipatzen baziren ere lanen-etete aktan ez zirelako zehazten: batetik, proiektu berriak eta obraren gelditzeak eragindako kostuak enpresari dagozkiola ber-



Errezabal egoitzaren obrak. A.O.

matzea, eta ez Udalari; etete horrek enpresa esleipendunaren aldeko inolako kalte-ordainik ekarriko ez duela bermatzea. Izan ere, EH Bilduk uste du obraren akatsak, kalteak eta atzerapena enpresak gaizki egindako proiektuaren ondorio direla; eta, azkenik, auzoan sortu diren pitzaduren kontrolen aldaketei buruzko hileroko txostenaz gain, enpresak proiektu

berriaren garapenari eta jarraipenari buruzko informazioa bizilagunei aldiro ematea, kalteei nola egingo dieten aurre azalduz.

EH Bilduk dio obra etetea erabaki zenetik eman diren pausoekeuren kezka areagotu egin dituztela, "Udal Gobernuak ez duela argi adierazi" eten horrek eragingo dituen gainkostuak nork hartuko dituen bere gain.

Argizaiola trofeoari buruzko erakusketa ikusgai, hilaren 24ra arte

A.A.

Argazki lehiaketaren lehiaketa da Argizaiola Trofeoa, eta 1980tik 2025era arteko ibilbideari buruzko argazkiak jarri dituzte ikusgai Kultur Etxean. Euskal Herriko Argazkilari Elkartearen Federazioak (EHATE) Ongarri argazkilari taldearekin elkarlanean antolatuta du ekimena, eta astelehenetik zapatara egongo da zabalik, 18:30etik 20:30era, hilaren 24ra arte.

Argizaiola Trofeoan elkarte federatuek antolatutako lehiaketetan saritutako lanek parte hartzen dute, eta, ondorioz, Argizaiola Trofeoa Euskal Herriko argazki-sari gorena da.

Bost denbora-tarte

Erakusketaren helburua da ondare hori babestea, zabaltzea eta balioestea. Era berean, erakusketa horrek euskal argazki-



Erakusketako bi argazki. A.A.

larien ibilbidea, sormena eta talentua omentzen ditu. Erakusketaren edukia eta egitura bost denbora-etapatan antolatuta dute, Euskal Herriko argazkigintzaren bilakaera teknikoa, estetiko eta tematikoa islatzeko: *Argizaiolaren jatorria eta begirada dokumentala* (1980-1989); *Sendotze artistikoa eta kolorearen hedapena* (1990-1999); *Argazkigintza digitalaren etorrera* (2000-2009); *Sormen-aniztasuna eta narratiba berriak* (2010-2019); eta *Argazkigintza garaikidea eta egungo erronkak* (2020-2025).

Gaueko zerua ezagutzeko irteera, gaur, Idotorbera

A.A.

Gure natura ezagutzen egitasmoaren barruan, gaueko zerua ezagutzeko irteera antolatu dute Baso Biziak taldeak, Morkaikok eta Atxutxiamaikak gaur gaueko. 20:30ean batuko dira, Idotorben, eta han afalduko dute denek elkarrekin. Afaritarakoa nork berea eraman beharko du. Izarrak ezagutzeko hitzaldia, berriz, 21:30ean hasiko da, eta

Jokin Martinezek emango ditu azalpenak. Prismatikoak eta linterna eramatea gomendatu dute antolatzaileek. Besteak beste, izarrak ezagutuko dituzte, eta haiei begira nola orientatu daitekeen ikasiko dute.

Udako oporren aurretik beste bi irteera egingo dituzte: maiatzaren 17an urmaela egingo dute, auzolanean, Lizagasarren; eta ekainaren 7an, bestalde, Aran-

tzadura joango dira, tximeletak ezagutzera. Udako oporren ondoren, urrian berrekingo diote egitasmoari.

Kobazulora bisita

Joan den domekan, bestalde, Ermittia Behekoa kobazulora egin zuten bisita 40 bat lagunek. Leizarpe espeleologia taldeko Angel Maria Tobajasek eman zizkien azalpenak han bildutakoei.



Bisitan parte hartu zutenak. GNE

Zabor-poltsa organikoak jasotzeko gune berriak jarri ditu Udalak

A.A.

Hondakin organikoaren birziklapena sustatzeko helburuarekin, poltsa konpostagarriak doan jasotzeko hiru gune fisiko gehiago jarri ditu Elgoibarko Udalak herrian, Debabarreneko Mankomunitatearekin lankidetzan: Santa Ana kalean dagoen Herriarren Arretarako Bulegoan; Kultur Etxean kokatu duten

Kontsumitzailearen Bulegoan eta Olaizaga kiroldagiko harrean. Hiru gune horiek zabalik dauden ordutegian egongo da aukera poltsak jasotzeko. Aurrerantzean, beraz, herriko bost lekutan eskuratu ahal izango dira poltsak, lehendik King Kong-en eta San Roken zeuden bi makinek ere martxan jarraitzen baitute. Ekimen horrekin,

elgoibartarrei erraztasun handiagoak eman nahi dizkie Udalak, etxeetan hondakinak behar bezala bereizteko beharrezko materiala beti eskura izan dezaten. Era berean, Elgoibarko Udalak eskerrak eman nahi dizkie herritarrei, hondakinen bereizketan erakusten duten inplikazio eta konpromisoagatik, eta Debabarreneko Mankomunitatearekin elkarlanean tokiko jasagarritasuna hobetuko duten prozesuak errazten jarraitzeko borondatea berretsi du.

Errege Kopako finala pantaila handian, bihar, Maalan

A.A.

Elgoibarko Udalak pantaila erraldoi bat jarriko du bihar Maalako parkean, Errege Kopako finala zuzenean ikusteko. Realak eta Atletico Madrilek jokatu dute partida, Sevillan, eta, Gipuzkoako beste hainbat herritan bezala, hura elkarrekin ikusteko aukera izango dute elgoibartarrek. Jotasua

Realeko peñak eta herriko kirol taldeek sustatu dute ekimena, eta Udalak ahalbidetu du. 21:00etan hasiko da norgehiagoka. Elgoibarko Udalak herritar guztiak Maalako parkera animatu nahi ditu, Gipuzkoako futbolarentzat mugargi izango den ekitaldia denok batera gozatu ahal izateko.



Alcorta taldea. SANLO



Cimde taldea. SANLO

Euskal Kopa irabazi du Alcortak, eta Federazio Trofeoa Cimdek

Salento taldea mailaz igotzeko aukerarik gabe geratu da

Ainhoa Andonegi

Sanlo Eskubaloi Taldeak bi titulu eskuratu zituen asteburuan: Alcorta Forging Group gizonen senior taldea Euskal Ligan lehiatzen ari da aurtentzen, eta joan den asteburuan Euskadiko Kopako finala jokatu zuen Barakaldoko Lasesarre kiroldegian. Indupime Basauri taldea izan zuen aurkari, eta elgoibartarrek 29-35 irabazi

zuten norgehiagoka. Zigor Esnaolak entrenatzen duen taldeak hiru aste barru hasiko den Nazional Mailara igotzeko kanporaketa izango du helburu hemendik aurrera.

Ez da, baina, hori izan Sanlok asteburuan lortu duen sari bakarra. Alcortak etxeratutako koparekin batera, Sanloko gazte mailako emakumezkoen Cimde taldeak Federazio Trofeoa

irabazi zuen, Errenteriako Ereintza taldeari 44-23 irabazita. Olatzaga kiroldegian jokatu zuten partida, eta zaleen babesari eta berotasunari probetxua ateratzen jakin zuen Sanloko gazteen emakumezkoen taldeak.

Ez zuen, baina, suerte bera izan gizonen taldeak, eta gazte mailako Deca gizonen taldeak galdu egin zuen Federazio Trofeoko finala. Etxean

jokatu arren, Ordiziako taldea nagusitu zen, eta, 28-31ko emaitzarekin partida irabazita, Goierri aldera joan zen trofeoa.

Salento, igoeratik kanpo

Senior mailako Salento gizonen taldea, berriz, Lurraldeko Bigarren Mailan jokatzeko ari da aurtentzen, eta, denboraldian zehar eskuratutako emaitzei esker, joan den asteburuan Lehenengo Mailara igotzeko kanporaketa jokatu zuen, Hernanin. Zapatuan Bera Bera taldearen kontra jokatu zuten elgoibartarrek, eta 32-26 izan zen azken emaitza, Salentoko taldearen alde. Domekako finala etxeko taldearen kontra jokatu zuen

Sanloko taldeak, eta Hernaniko taldeak ez zion erraztasunik eman Elgoibarko taldeari. Final borrokatua izan zen, baina, gutxiatik izan bazen ere, etxekoak nagusitu ziren: 29-27. Garaipen horri esker, Hernaniko taldeak jokatu du datorren denboraldian Lurraldeko Lehenengo Mailan.

Salento taldeak bigarren urtez jokatu du mailaz igotzeko kanporaketa, eta bigarren aldiz gelditu da igoeraren atarian. Hala ere, taldeak egindako denboraldia eta lortutako emaitzak nabarmendu ditu klubak, eta eskerrak eman dizkie taldeari babesa ematera Elgoibartik Hernanira joan ziren zaleei.

Emaitza onak lortu dituzte igeriketa taldekoek

Alebin Ligako seigarren jardunaldia jokatu zen asteburuan Bergaran, eta Elgoibarko igerilarien emaitzak nabarmendu ditu klubak: Malen Tarragalek eta Naia Ortegak tximeleta estiloko 100 metrokoan lortutako 1.33ko marka "oso adierazgarria" dela esan dute, eta baita Telmo Insaustik eta David Mutek lortutako 1.29ko eta 1.30eko denborak crawl estiloko 100 metrokoan. Txandaka, berriz, bigarren egin zuen taldeak bizkar estiloko 50 eta 100 metrokoetan.



IGERIKETA TALDEA

Lur azpiko sekretuak, bistan



JABI LEON

Merkatu Plazako transformadore elektrikoa lekualdatzeko obrak lur azpiko sekretuak azaleratu ditu: San Frantzisko iturri azpian garai bateko komunak azaldu ziren lehenengo, eta orain, garai bateko gasolio-depositua bistaratu da Merkatu Plaza azpian. 70eko hamarkadan eraiki zuten anbulatorioko berogailu-sistema elikatzen zuten depositua da. Ikusmina piztu du objektuak.



Mendaroko herri sarreran UEMAK jarritako kartela. AINARA ARGOITIA

Euskararen kale erabilera: %43,9

2021. urtean egin zuten euskararen kale erabilera inguruko azken neurketa ofiziala Mendaron, eta, haren arabera, %43,9koa da. Herritarren pertzepzioaren kontrara, 2 eta 14 urte artekoek egiten dute euskara gehien kalean (%53,4), eta gutxien, berriz, 15-24 urte artekoek (%23,7). Esan bezala, baina, beste bat da herritarren ustea.

Ainara Argoitia MENDARO

Euskararen egoeraz hitz egiteko saioa egin zuten Mendaron udaberriko oporraldiaren bezperetan. Euskarak gaur Euskal Herrian duen egoera aztertu, eta Mendaroko Udalak eta UEMAK orain hurrengo herrian egindako inkestaren emaitzak aletu zituzten. Ibon Aginaga UEMAKo teknikariak gidatu zuen batzarra, eta euskararen biziberritze prozesuan Iñaki Iurrebaso soziolinguistikak proposatutako paradigma aldaketa azaltzen hasi zuen saioa. Iurrebasok defendatzen du hizkuntza bat erabiltzeko erraztasuna eta gaitasun nahikoa izan behar direla, eta datu soziolinguistikoetan oinarrituta dio dagoen ezagutza-mailarako euskara asko egiten dela Euskal Herrian. Horren harira dio gaur egun euskal hiztunen %89,4 erdara nagusi den eremuetan bizi direla -2.454.002 hiztun-, eta %4,7, arnaguneetan, euskara nagusi den eremuetan. Horregatik, oso garrantzitsu deritzo arnaguneei eusteari, euskaldunenak diren zonetan ekarpen kuantitatibo handia egiten zaiolako euskarari.

Erdaraz euskaraz baino errazago

Mendarora etorrita, B2 ahozko hizkuntza-gaitasuna duten 16 urtez gorakoek gaitasuna aztertu du UEMAK, biztanleria-zentsuetatik, Inkesta Soziolinguistikotik eta Espainiako Institutu Nazionalaren inkestetako da-

Haurren eta gazteen artean sentitzen dute euskara ahulen mendaroarrek

Euskalduntasuna bultzatzeko ekimenak sustatzea eta euskara eta euskal kulturaren transmisioa gozamenetik egiteko bideak aztertzea proposatu dute herritarrek, Mendaro euskaldunagoa egiteko

tuetatik abiatuta, eta ondorioztatu du euskal gaitasuna nagusi duten hiztunen herritarren %30 direla: 482 guztira. Aldiz, erdaldun elebakarrak, erdaldun hartzaileak eta erdal elebidunak 793 dira guztira, hiztunen %49,5. Beraz, erdaraz euskaraz baino errazago aritzen direnak gehiago dira Mendaron, eta horrek, jakina, eragina du erabileran.

Euskararen kale erabilera neurtzeko egindako azken neurketa ofizialaren arabera -2021. urtean-, euskararen erabilera %43,9koa da Mendaron. 2 eta 14

urte artekoek egiten dute euskara gehien kalean, (%53,4), eta gutxien, 15-24 urte artekoek (%23,7). Datu kezkarria da; bereziki, azken hori.

Erabilera haztatua, gainera, apalagoa da. Adin-tarte bakoitzean elkarrizketa kopuru bera aintzat hartuta kalkulatzen dute erabilera haztatua, eta, horrenbestez, zehatzagoa ere bada. Bada, azterketa horren arabera, euskararen etxeko erabilera %45,8koa da Mendaron, eta kale erabilera, %43,2koa. Bien artean egindako gurutzaketatik kalku-

latzen dute hurbileko erabilera sintetikoa zenbatekoa den, eta horretan oinarritzen dira gero esateko arnagunea betea edo erasana den; alegia, nagusitasun argirik gabeko udalerrria den edo ez -erabileran euskararen pisua %40-60koa denean-. Herri baten euskalduntasuna neurtzeko baliagarria da, beraz, datu hori, eta, UEMAKen arabera, udalerrrien euskalduntasuna aintzat hartuta, Mendarokoak Gipuzkoako herritarren %72,3 baino ingurune euskaldunagoan bizi dira.

Laburbilduz, udalerrri euskalduna da Mendaro, eta UEMAKo kidea da 2017az geroztik, betetzen duelako uemakide izateko baldintza: euskaldunen indizeak %70eko gutxienekoa gainditzea. Hala ere, herritarren pertzepzioa da gero eta euskara gutxiago entzuten dela Mendaron.

Mendaroarren iritzia

68 lagunek erantzun dute inkesta, eta erantzun dutenen %97,1k aitortu dute ondo egiten dutela euskaraz. 41-64 urte artekoek osatzen dute inkesta bete dutenen kopuru handiena (%80,9), eta hamarretik sei emakumeak dira. Esan bezala, gehienek us-tez, hamarretik zortzirenean us-tez, gero eta euskara gutxiago egiten da Mendaron; bereziki, umeen eta gazteen artean. Baina bada immigrazioaren kontua aipatu duenik ere; atzerrikik etorri eta euskarara gerturatu ez direnak gero eta gehiago direla uste dute

haiek, eta arazo bat ikusten dute hor.

Euskara indartsuen herriko kultur eskaintzan eta familia-giroan ikusten dute inkesta erantzun dutenen erdiek baino gehiagok. Apalen, berriz, ingurune hauetan eta hurrenkera honetan: haurren artean (%73,5), gazteen artean (%48,5), sare sozialetan (%42,6), lagun arteko harremanetan (%33,8) eta gurasoen artean (%29,4). Hutsune nagusiak begiz jota, non eragin beharko litzatekeen aztertzen jardun ziren bilerara bertaratutakoak, talde txikietan.

Non eragin edo zeri eman lehenatasuna? Galdera hori egin zuten Aginagak. Erronka ere jarri zuten: 2035erako helburu batzuk adostea Mendaro euskaldunagoa egiteko. Erlojuaren kontra bete zuten ariketa izan zen hori, denbora gainera etorri zitzaielako, baina, hala ere, ekarpen batzuk egin zituzten; besteak beste, euskalduntasuna sustatzeko ekimenak sustatzea, euskarak dena lortu duen ustea zabalduki ikusten dutelako, eta, bestetik, euskararen eta euskal kulturaren transmisioa gozamenetik egiteko moduak aztertzea, iruditzen baitzaie euskara bere soilean transmititzen dela, oraindik orain, gehiegitan.

Ekarpen guztiak jaso dituzte UEMAK eta Udalak, eta aurreratu dutenez, horietan sakontzeko bigarren saio bat egitea aztertzen ari dira orain.

Gaur, hilak 17, zabalduko dute Mendaroko udaleku irekietan izena emateko epea

Mendaroko Udalak antolatu ditu udalekuak, HH3 eta LH6 arteko ikasleentzat

Ainara Argoitia MENDARO

Udaleku irekiak antolatu ditu aurten ere Mendaroko Udalak udako oporraldirako, eta jakinarazi dute gaur, apirilak 17, zabalduko dutela izena emateko epea. Bi txanda izango dira aukeran, baina bietan izena emateko aukera ere izango da, prezio merkeagoan. HH3 eta LH6 arteko ikasleentzako eskaintza da, eta maiatzaren 4a izango da izena emateko azken eguna.

Ekainaren 22tik uztailearen 3ra artekoa izango da lehenengo txanda, eta uztailearen 6tik uztailearen 17ra artekoa bigarrena.

Txanda bakoitzean izena emategatik 70 euro ordaindu behar dira, baina bietan izena eman nahi duenak hogeituroko deskontua izango du, eta, beraz, 120 euro ordaindu behar dira biengatik. Udalekuen ordutegia, berriz, 09:00etatik 13:00ak artekoa izango da. Udalak jakinarazi du familia ugariak eta guraso bakarrekoei dirulaguntza jasotzeko aukera izango dutela; horren inguruko informazio guztia Udalen webgunean dago zintzilikatuta, eta izen emateak mendarobirtuala.eus webgunean egin behar dira.



San Fermin Txiki eguna. AINARA ARGOITIA

Maiatzaren 10ean Herri Urrats jaia egingo dute Senperen, eta hara joateko autobusa antolatu du In Leike elkarteak

A.A. MENDARO

Ipar Euskal Herriko ikastolen alde egiteko, euskaltzalez beteko dira aurten ere Senperen aintzira inguruak maiatzaren 10ean. Lizeo berria eraikitzeko dirua biltzeko egingo dute aurten Herri Urrats, eta horri egiten dio aipamena aurtengo leloak: *Geroa eraikiz*; izan ere, *eraikiz* hitzarekin, argi geratzen da Herri

Urrats jaietan jasotzen den sostengua zertarako erabiltzen den: ikastolak eraikitzeko. Bada, jai horretara joateko autobusa antolatuko du aurten ere In Leike kultur elkarteak, Debako Zuhaiza euskaltzaleon mugimendukoekin elkarlanean.

Autobusa 08:45ean irtengo da, Mendaroko tren-geltoki ondotik, eta bi geldialdi egingo ditu gero,

Deban eta Itziarren, hangoak jasotzeko.

Autobuseko txartelak 10 euro balioko du, eta, Mendaroko kasuan, autobusean bertan ordaindu behar da, eskudirutan. Antolatzaileek ohartarazi dute 14 urtez azpikoek heldu batek lagunduta joan behar dutela. Izena emateko: mendaroninleike@gmail.com.

Etzi, igandea, bukatzen da Gazte Asanbladak antolatutako frontenis txapelketan izena emateko epea

A.A. MENDARO

Binakako frontenis txapelketa antolatu du Mendaroko Gazte Asanbladak, hirugarren urtez, eta apirilaren 19a arteko epea dago izena emateko –igandea–. Hiru kategoria bereizi dituzte: 16 urtez gorako gizonezkoena, 16 urtez gorako emakumezkoena eta nerabeena –2010-2014 bitartean jaiotakoena–, eta partidak asteazken, ostegun eta ostiraletan jokatu direla zehaztu dute. Izena emateko bikote bakoitzak hamabina euro ordaindu behar ditu, baina nerabeek doan izango dute. Apirilaren 19a da txapelketarako izena emateko azken eguna.

na, eta interesatuek Gazte Asanbladak sare sozialen bidez zabaldu duen mezuan atxikita dagoen QR bidez eman dezakete izena, edota, nahiago izanez gero, Morroskillo dendan, paperean. Txapelketa maiatz er-

dialdera hastea dute aurreikusita, baina izena emandakoen arabera antolatuko dute egutegia, eta oraindik ez dute egun zehatzik eman. Finala, hori bai, uztailearen 23an jokatu dela aurreratu dute, santanetan.



Nerabeen izako frontenis txapelketako finaleko argazki bat. AINARA ARGOITIA



Cristina Castillo bera, antzezlaren une batean. SARETIK HARTUA

'La cosa' antzezlana izango da etzi, igandea, San Agustin aretoan

A.A. MENDARO

Cristina Castillo azkoiendarrak zuzendu eta antzeztutako *La cosa* antzezlana ikusteko aukera izango da igandean, apirilaren 19an, Mendaron. Azala lastu eta barruak inarosten dituen gai baten inguruan idatzi du gidoia Castillok, haurren kontrako abusuen inguruan, eta hauxe dio antzezlana aurkezteko eskuorrian: "2023ko apirilaren 7an, bi musu eman zizkidan aurpegian ume nintzela nitaz abusatu zuen gizonak. Gerora gertatu den guztia orain ikusiko duzuen gauza hau [La Cosa] bihurtu da: algararen eta amildegiaren artean mugitzen den tragikomedia basati

bat. Orain, gertaerak beren lekuan jarrita daudenez, aurkeztu ahal dizkizuet".

Umorea, ihesbide

Halako gai baten inguruan umorea egitea zaila dela uste arren, umorea eta ironia erabiltzen ditu Castillok ihesbidetzat. Barre, oihera eta dantza egiteko argibideak proposatzen ditu antzezlanean, haren esanetan umorea delako bizirauteko erreminta onena.

Antzezlana 12 urtez gorakoei dago zuzenduta, eta gaztelaniaz izango da. San Agustin kultur-gunean izango da emanaldia, 18:30ean hasita, eta sarrera doan izango da.

SALAKETA

EAJren kontrako pintaketak Batzokian



EAJren kontrako pintaketak egin zituzten joan zen astean Batzokiko atarian, eta Mendaroko Udalak gogor salatu ditu. Pintaketak onartezintzat jo dituzte, eta elkartasuna agertu diote EAJ alderdiari. Era berean, jakinarazi dute pintaketak ezabatzeko agindua eman dutela, halakoetan beti egin ohi duten moduan. Herriar batek ere salatu ditu pintaketak BARRENAren bidez.



El Drogas, aurtengo otsailean Azpeitian emandako kontzertuan. OSCAR BLANCO



Zea Mays taldeko Aiora Renteria. U.B.B.



Travellin Brothers, Ermua Antzokian, Big Bandarekin. OSCAR BLANCO

El Drogas, Zea Mays eta Travellin' Brothers, 2026ko santixauetako kontzertuen artean

Uztailaren 17tik 27ra, goi-mailako rock taldeek alaituko dituzte Ermuko jaiak

Ander Gomez ERMUA

Jai Batzordeak ezagutzera eman ditu 2026ko jaietako kontzertu nagusiak, eta rock, pop eta blues doinuek beteko dituzte San Pelayoko parkea eta Orbe Kardinala plaza.

El Drogas eta Zea Mays, jaietako lehen asteburuan

El Drogas ezizenez ezaguna den Enrique Villarreal abeslari iruindarra 2022an egon zen azkenekoz Ermuan. Antzokiko taula gainera igo zen orduan, eta sarrera guztiak agortu zituen.

Aurtengo santixauetan, berriz, San Pelayoko parkean emango duen kontzertu irekian entzun ahal izango dute ermuarrek, uztailaren 17an –barikua–, 23:00etan. 2026ko biran murgilduta dago Barricadako baxu-jole ohia. Gaur, etxean –Iruñean– jarraian emango dituen lau kontzertuetako lehena izango du; ondoren, Bartzelonan eta Madrilen arituko da; eta, azkenik, Euskal Herrira bueltatuko da, Ermuko jaiei hasiera emango dien lehen kontzertu nagusia jitzeko.

Bestalde, Aiora Renteria buru duen Bilboko taldeak 2017ko santixauetan ospatu zuen taldearen 20. urteurrena, eta aurtun, 30 urte betetzear direla, Ermura bueltatuko dira. El Drogasen lekukoa hartu, eta uztailaren 18an –zapatuan– igoiko dira San Pelayoko taula gainera, 23:00etan.

Travellin' Brothers taldea, Zezen Egunean, Big Band eta guzti

Leioako taldeak sei urte atzera bisitatu zuen Ermua Antzokia. Big Bandarekin egin zuten; for-

mazio originalaz gain –ahotsa, gitarra, baxua, bateria, saxoa eta pianoa–, bi koristarekin eta zortzi haize-instrumentistarekin igo ziren eszenatokira. Aurtun, bi hamarkada beteta, hamaikagarren diskoa egin dute guztiek batera, *Back to Business*, eta ermuarrek berriz ere izango dute talde handia ikusteko aukera; oraingoan, musu-truk. Zezen Egunean izango da, uztailaren 27an –astelehena–, eta, hain zuzen ere, Orbe Kardinala plazako oholtzan joko dute, 23:30ean.

Dantzaldiak eta kaleko emanaldiak ez dira faltako

Herritar askok kontzertu nagusiak baino gogokoago dituzte orkestrek egiten dituzten dantzaldiak. Aurtun, hiru egun jarraian izango dituzte, gau bakoitza orkestra desberdin batekin. Iazko santixauetan aritu-

tako Vulkano eta Nueva Alaska taldeak berriz ere izango dira plazan, uztailaren 24an eta 25ean, hurrenez hurren; eta Pasarela orkestrak hilaren 26an emango du kontzertua.

Bestetzuk kaleak musikaz alaituko dituzten taldeen emanaldi txikiak edota herriko kolektiboek antolatutako kontzertuak dituzte nahiago; besteak beste: Artistas del Gremio, Brinkadeira eta Rockalean txarangak, abesti eta play-back lehiaketak, Euskal Birusa Elkarrekin antolatutako DJ saioa eta elizpeko ohiko kontzertua, KI Ermuak antolatutako duen kontzertua, Umeen Eguneko *Festan Blai* disko-festa eta bertso eskolak antolatutako Bertso Jaialdia. Borobiltzeko, dantza erakustaldiak egingo dituztela iragarri dute Txindurrik eta kultur etxeek.



Julian Etxeberria, 12-1. - 20600 EIBAR
943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Irribarreetan adituak, etor zaitez gu ezagutzera



Ainhoa Zulueta doktorea



Ermua CDren gazte mailako taldea, txapelketa hasi aurretik. I. ALCOBA



Jorge Veloso, ohorezko sakea egitera bidean. I. ALCOBA

Monroe futbol txapelketak Estatu osoko gazteak batu ditu Ermuan

Ermua CDk antolatutako futbol txapelketak bederatzigarren aldia izan du. Klubaren 75. urteurreneko programazioaren baitan jokatu da, gazte mailako zortzi taldek hartu dute parte, eta Castelloko Vila-real izan da nagusi

Ander Gomez ERMUA

Joan den asteburuan, apirilaren 11n, Estatu osoko gazte mailako taldeak hartu zituen Ermua CDk etxean: Eibar SD, Athletic Club, Real Sociedad, Real Racing Club, RC Celta de Vigo, Deportivo Alaves eta Vila-real CF.

Goizean goiz hasi zituzten partidak, bi taldetan banatuta: A multzokoek Teodoro Zuazuan jokatu zuten; B multzokoek, berriz, Betiondo Kirolguneko zelaian. Hasierako fase hartan hamabi partida jokatu zituzten, eta finalaurrekoetara pasa ziren

Eibar, Athletic, Celta eta Vila-real. Arratsaldean neurtu zituzten indarrak, eta, esfortzu bikaina egin zuten arren, finalerako txartel barik geratu ziren euskal taldeak. Iazko txapelketan egon ez eta aurten itzuli diren Vila-realek eta Celta de Vigok jokatu zuten finala.

Lehia estua izan zen, eta *itsaspeko horia*-k altxatu zuen kopa, vigotarrak 3-1 mendean hartuta. Jokalari Onenaren saria Vila-realgo Marc Ascoz atzelariak jaso zuen; baina goleatzaile nagusiarena Celta de Vigoko Nico

Mindiolari eman zioten. Horrez gain, Jorge Veloso omendu zuten, zuzendaritzan laguntzen jarraituko duen arren, sei urteren ostean kirol zuzendari kargua utziko duelako.

Urteurreneko hurrengo ekintzak Maiatzaren 16an festa bihurtuko dute lehen taldearen ligako azken partida, uztailaren 3an eskolako umeen txapelketa egingo da eta 4an ekitaldi nagusia, dokumental proiektzio, sari-banaketa eta herri bazkariarekin. Tikitak salgai jarri dituzte jada.



Eibarko jokalaria bat. I.A.



Alaves-Athletic partidaren. I.A.



Vila-real-Racing partidaren. I.A.



Realeko atezaina. I.A.



Vila-realgo jokalariai, ospatzen, kopa jaso berrian. I. ALCOBA



Nico Mindiola, golegile txapelarekin. I.A.



Marc Ascoz MVPa, txapelkunaren koadroa zintzilikatzen, Teodoro Zuazuan. I.A.

"Itzulia erakusleiho itzela izan da, eta horren fruituak zuzenekoetan ikustea espero dugu"

JON ANDONI MORENO MOMAK TALDEKO BURUA

Ander Gomez

2025ean Itzuliak kantu ofiziala izan zuen lehen aldiz historian, eta aurtengoa Momak taldeko Jon Andoni Moreno ermuarrak sortu du.

Zelan lortu duzue 2026ko Itzuliaren soinu-banda izatea?

Iaz, Janus Lesterren *Dab Dab* doinu ofizial izendatu zutela ikusi genuen. Guk *Itzuliko naiz* kaleratu berri geneukan, izenaren lotura kurioso iruditu zitzaigun eta harremanetan jarri ginen eurekin. Momentuan goiz zela esan ziguten, mezua jaso zutela eta pentsatuko zutela.

Horrelakoak hortxe geratu ohi dira, baina kasu honetan ez zen hala izan.

Ez, zorionez. Urtera, eurak jarri ziren gurekin kontaktuan, interesatzen zitzaizela eta ondo "enkajutzen" zuela abestiak. Egia esan, apropos egindakoa dirudi.

Baina, diozun moduan, abestia aurretik konposatuta zeneukaten. Loturaren bat gehiago topatu duzu, izenburuz haratago?

Itzalak besarkatzeari eta iluntasunak onartzeari buruz mintzo dira hitzak, eta gure esentzia eguneroko gauza txikietan dagoela. Nik neuk buelta bat izan dut herrira, 18 urte Euskal Herriatik kanpo pasa ostean, eta horrekin lotzen dut. Azkenean, hori da Itzulia, eraldaketa prozesu bat pasa eta gero toki berrera bueltatzea, baina hor jada beste bat zara, hazi egin zara. Txirringularitza esfortzua da, erresilientzia, eta hor konektatzen dira kirola eta musika.

... eta publikoarekin, konektatu du?

Mezua sakona izan arren, melodia itsaskorra du, eta musika, behintzat, bai egon da bueltaka jendearen buruan. Ikasleak [musika irakaslea da DBHn eta ba-

txilergoan] kexaka etorri zaizkit, toki guztietan ari zirela entzuten: irratan, telebistan...

Zer sentitu duzu medio handietan zure musika eta zure ahotsa entzutean?

Izugarria izan da. Aitortu beharra daukat lotsa antzeko bat sentitu dudala neure burua ikustean; arraro egiten da. Baina, oro har, poztasun handia eman digu eta oso harro gaude. Horrelako aukerak lortzea ez da batere erraza; batik bat, autoekoiztutako proiektuen kasuan. **Zuzenean defendatzeko aukera izan zenuen, aurkezpen-ekitaldian.** Bai, akustikoan jo nuen, eta, bitartean, Lobianon grabatu genuen bideokliparen eta iazko Itzuliaren irudiekin egindako bideo polit bat proiektatu zuten. Mahai gainean ere egon zen azken etapan talde osoarekin interpretatzeko ideia, baina es-



Begarako Seminarixoa egindako Itzuliaren aurkezpenean. GOIENA

kerrak ez genuela jo, demaseko zaparrada egin zuen eta [Barre]. **Itzulia bukatu da. Zein balorazio egiten duzue?**

Guk jendearekin konektatzea, publiko berria erakartzea eta egindako lanaren errekonozimendua lortu nahi genuen. Ez gara jarraitzaileak edo bistartzeak kontaktzen aritu, erakusleiho itzela izan dugu eta horren fruituak zuzenekoetan ikustea espero dugu. Dagoeneko kontzertu batzuk ditugu lotuta, baina, oraingoz, bakarria aurreratu dezakegu: ekainaren

5ean Ermuan izango gara, Lobianon.

Material berria aurkeztuko duzue?

Bideoklip bat bukatzen ari gara eta bizpahiru aste barru abesti berria argitaratuko dugu. Gure asmoa da single gehiago kale-ratzen joatea eta guztiak batzea Durangoko Azokan disko formatuan aurkezteko.



Itzuliko naiz kantarean bideoklipa ikusteko, eskaneatu QR kode hau

Estibalitz González

Ciudad de Fuengirola Album Ilustratuaren V. Nazioarteko Sarietan accesita lortu du Txabi Arnal Gil ermuarrak idatzi eta Roger Olmos Pastor bartzelonarrak ilustratutako *Diez gatos aburridos* ipuinak, urrian Malagako udalerrri hartan sari banaketarekin batera argitara emango dena.

Mundu osoko idazleak lehiakide

Sona handia lortzen ari den nazioarteko sari horretarako 140 proposamen aurkeztu zituzten mundu osoko hamabost herrialde baino gehiagotako egileek, hala nola Argentina, Italia, Frantzia, Brasil eta Mexikokoek. Epaimahaiak ondoen baloratutako lana Charo Pita galiziar idazlearen eta Marjorie Pourchet frantziar ilustratzailearen *¡Tira que tira!* albuma izan da, 10.000 euroekin sari-tuko dena eta argitaratua izango dena OQO argitaletxearen kolaborazioarekin.

Txabi Arnal Gil ermuarrak idatzi eta Roger Olmos Pastor bartzelonarrak ilustratutako *Diez gatos aburridos* lanak accesita izateko merezimenduak



Diez gatos aburridos ipuinaren ilustrazioetako bat. ROGER OLMOS



Txabi Arnal. HIL ARGI ELKARTEA

Txabi Arnalen liburuko ilustrazioak saritu dituzte nazioarte mailako lehiaketa batean

Ciudad de Fuengirola sariko accesita lortu du Roger Olmos marrazkilariarekin

dituela eman du aditzera epaimahaiak, eta goraiatu du istorioaren talde-abenturarako gonbidapen ludikoa eta baita porrota ikaskuntza gisa proposatzearena, pertseberantzia funtsezko jarrera modura hartuz.

Horrez gain, haren irudi koloretzuek kontakizuna zabalitzen dute, esperientzia aktibo eta partekatua sustatzeko.

Nork bere arloan, Arnalek zein Olmosek hainbat lan argitaratu dituzte, eta biak ala biak

sari eta aitortza ugari jasotakoak dira. Aurretik beste bi lanetan elkarrekin aritu izan dira, *La leyenda de Zum* eta *El Rompecabezas*; azken hori, Manu Arnal anaiarekin batera idatzitakoa. Rogerren proposamena iritsi

zitzaionean, "etorri nahi duzu nirekin lehiaketa horretara?" esan eta elkarrekin zeezer sortzeko gonbita eginez, ez zuen zalantzarik egin. Idatzita eta gordeta zuen umeei zuzendutako katuen istorio "ganberro, dibertigarri, irudimentsu" hura bidali, lagunak ilustratzeko funtsa bazuela ikusi eta proiektua aurkeztu ostean, 140 haien artean aukeratua izatearen ohorea etorri zaie bi egileei.

Urrian argitaratuko da

Diez gatos aburridos lanak diru-saririk jasoko ez duen arren, urrian album irabazlea bezala eta harekin batera argitaratua izango da. Sari banaketa eta bi liburuen aurkezpena Liburutegien Nazioarteko Egunaren harira egingo da, Fuengirolan, eta egileei pare bat hitzaldi egiteko aukera eskaini diete. Pozik, oso pozik dago ermuarra, sariak dakarrenegatik, zelan ez, eta hitzaldiek haren jardunaz berba egiteko aukera zabalitzen diotelako. "Haur literatura nola ulertzen dudun, nola praktikatzen dudun, nire filosofia berarekiko nolakoa den azaltzeko", haren esanetan.



Bizikleta jaitsiera, Ultzamatik Ermuko herrigunera. PEDALMETAL TALDEA



Mikel Zarate kalean korrika, Mallabian. XABIER AGIRRE

Bizkaiko herrien arteko kirol lehia murgildu dira Ermua eta Mallabia

Eguazten honetan hasi da Kirolur erronkaren Udaberriko Liga

Ander Gomez

2026ko Europako Kirol Lurralde izendatu dute Bizkaia, eta, tustinguru horretan, udalerrien arteko kirol lehia berezia antolatu du Foru Aldundiak: Kirolur erronka. Herritarren artean jarduera fisikoa sustatzeko tresna dela azaldu dute, partaidetza eta kolektibitate dinamiketan oinarritua, eta teknologia berrien laguntza izango duena.

Erronkak liga formatua izango du, urtean zehar hiru alditan ba-

natuko da eta bakoitzak hilabete iraungo du: udaberrikoa apirilaren 15ean hasi zen eta maiatzaren 17an bukatuko da; udakoa ekainaren 15etik uztailearen 15era bitartean egingo da; eta udazkenekoa, irailaren 23tik urriaren 23ra. Denbora tarte horietan, Ermuko, Mallabiko eta gainontzeko bizkaitarren jarduera fisikoa erregistratuko da.

Parte-hartzea ez da kirol bakar batera mugatzen, "mugimendua bera" baloratzen dela azpimarra-

tu dute. Oinez ibiltzea, korrika egitea, bizikletan aritzea, igeriketa egitea, mendi-ibilaldiak... edozein jarduera hartuko da kontuan, eta egindako kilometroak puntutan islatuko dira.

Sariak eta lehia "justua" izateko neurriak

Puntuazioak sailkapen orokor bitan jasoko dira: banakakoa eta taldekakoa—hau da, herrrikakoa—, eta bakoitzean sariak egongo dira. Banakako kategorian, gu-

txienez 150 puntu lortzen dituztenek opari ofizialak eskuratze-ko aukera izango dute. Taldekatu kategorian, berriz, sailkapenean goiko postuetan bukatzen duten herriek tokiko kirol ekipamendua indartzeko baliabide ekonomikoak jasoko dituzte.

Zehaztu dutenez, puntuak banatzeko orduan zuzenketak aplikatuko dira biztanleriaren arabera, herri handien eta txikien artean sor daitezkeen desabantailak orekatze aldera. Horrez gain, datuak jasoko dituen aplikazioak koefizienteak erabiliko ditu kirol jardueren arteko oreka ere bermatzeko, egindako ahalegina "modu bidezkoan" neurtzeko.

Mugikor bidezko parte-hartzea

Datuak jasoko dituen aplikazioak *Wellk* du izena, eta GooglePlay

zein AppStore aplikazio-dendetan dago eskuragarri, musu-truk. Erronkara batu nahi dutenek deskargatu egin beharko dute, profila sortu eta norbere herriko taldera batu. Hortik aurrera, eguneroko jarduera fisikoa erregistratuz batuko dira lehiara. Datu horiek modu automatikoa jaso daitezke—mugikor barneko GPSarekin edo aplikazio espezifikoekin— zein aparteko gailuak sinkronizatuta—Strava, Garmin, Fitbit...—.

Bi herrietako udalek erronkara batzera animatu dituzte herritarrek, Ermuaren eta Mallabiaren presentzia indartzeko Bizkaiko kirol-markoan. Parte-hartzea irekia dela gogoratu dute: 14 urtetik gorakoak batu daitezke, kanpoan bizi direnak barne, errolatuta egon edo ez.

Barrena
BEBARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

943 743 704
688 769 657

Jarri ezazu zure publizitatea **BARRENA** astekarian edo www.barrena.eus webgunean

50 ARTARRAI
MENDI TALDEA - ERMUA

Ekinez ekin bidean darrai

OINAK LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A - 48260 Ermua
943 17 47 44

ALBOKA

Abesbatza	Gitarra	Perkusioa
Banda	Gitarra elektrikoa	Pianoa
Biolina	Gitarra baxua	Saxofoia
Biolontxeloa	Musika Hizkuntza	Trikitixa
Flauta	Klarineta	Tronboia
	Panderoa	Tronpeta

MUSIKAZ ESKOLA
943 17 12 98

albokamusikaeskola@hotmail.com

Probidentzia Andra Mari ikastetxea
www.aldatze.eus

B eredia

aldatze

Eskabideak egiteko epea: Martxoaren 16tik 27ra

943 70 11 50 / aldatze@aldatze.org

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak, teledistak, musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

RIF

ITURGINTZA KONPONKETAK

Valdespina Markesa 16 - ERMUA
605 71 10 81

Betiko formatua eta talentu berriak dakartza Biharko Izarrak pilota txapelketak

Mutilek joan den astean hasi zuten lehia; neskek datorren astean ekingo diote

Ander Gomez

Malle Euskal Pilota Klubak apirilaren 7an aurkeztu zuen Biharko Izarrak txapelketa. Mutilak bakarrik egon ziren presente; neskek euskal selekzioarekin lehiatzen zeuden, Argentinan. Hogei pilotarik jokatuko dute 22. aldia, eta zerrrendaren erdia hainbat tokitatik etorritako aurpegi berriek osatuko dute; tartean, Sagardui nafarra, Irribarria gipuzkoarra eta Canseco errioxarra.

Formatua berbera izango da: gizonezkoak bikoteka lehiatuko dira, bi multzotan banatuta, bakoitzean launa aurrelari eta atzelarekin. Hitzordu bakoitzean bikotekidea aldatuko dute, eta sailkapena indibiduala izango da. Emakumezkoen kasuan, lau eta erdian arituko dira, guztiak guztien kontra, eta bi onenak finalera pasako dira zuzenean.



Ohi bezala, Trabakua Behekoa jatekxan egin zuten aurkezpena. UDALA

Helburua ere irmo mantentzen du: talentu berriak ezagutaraztea. Iazko finalistetatik hiruk egin dute debuta: Amianok, Apezteak eta Landak. Laugarrena Sotil izan zen, eta, harena ere laster espero den arren, momen-

tuz Biharko Izarraren lehiari murgildu da berriz, eta txapelketako faboritoetako bat da.

Txapelketa hasi da jada

Mutilek joan den egunean izan zuten lehen hitzordua. Frontoi-

ra ateratzen lehenak Etxeberria-Apeztegia eta Eiguren-Canseco izan ziren. Parekatuta hasi ziren, baina partidaren erdia pasata hautsi eta 22-11 bukatu zen lehia, Etxeberriaren eta Apeztegiaren alde.

Bigarren partida gogorra izan zen, ordu eta laurdeneko iraupenarekin eta berdinduta azken momentura arte. Fernandez-Bernaola eta Murua-Sotil bikoteek jokatu zuten. Azken haiek aurretik izan ziren neurtuta osoan, baina bukaeran Fernandezek eta Bernaolak buelta eman eta 22-19 nagusitza lortu zuten.

Neskek, datorren egunean

Apirilaren 23an jokatu da nesken lehen partida. Gamindek eta Ibarrolak neurtuko dituzte indarrak, Mallabia I. pilotalekuan, 20:45ean. Gero, mutilen txanda izango da: Hormaetxe-Santesteban eta Beitia-Apeztegia lehenengo; Irribarria-Goikoetxea eta Lizeaga-Bernaola bigarren.

Sarrerak 3 euroan egongo dira salgai, leihatilan, baina antolatzailerek gogoratu dute bonuak eskuratu daitezkeela, 30 euroan, partida guztiak ikusteko –finalurrekoak eta finala barne–.

Suizidioaren prebentzioan heziko dira familiak, irakasleak eta osasun-arloko profesionalak

Apirilaren 24an eta 25ean doako hiru tailer emango dituzte Kontzejuzarrean



2024an egindako lehen tailerra, Kontzejuzarrean. NATALIA VILLEN

A. Gomez

Mallabiko Udalak 2024an antolatutako lehen aldiz suizidioaren gaia lantzeko tailer irekiak. Ongizate Sailak jasotako feedbackaren arabera, parte-hartzaileek "oso gustura" bukatu zuten, eta, "gehiago sakontzeko gogoz", errepikatzea erabaki dute. Au-

rekoan bezala, osasun mentalean eta suizidioaren prebentzioan aditu Ithar Saldaña hezitzaileak emango du ikastaroa.

Haurtzaroan eta nerabezaroan gertatzen den ondorez emozionala landuko dute lehen ikastaroan, eta familiei zuzenduta egongo da. Ondorez hori uler-



Ithar Saldaña hezitzailea. N.V.

tzeko gakoak ikasiko dituzte, alerta-seinaleak identifikatzeko baliabideak emango dizkiete eta familia barruan komunikazioa indartzeko estrategiak jorratuko dituzte. Datorren barikuan izango da, apirilaren 24an, 18:00etatik 20:30era, Kontzejuzarrean.

Biharamunean, beste saio bat egingo dute, hezkuntza eta osasun arloko profesionalen zuzendutakoa. Bertan, hezkuntza-esparruko prebentzioa, detekzio goiztiarra eta familiekin koordinatzeko tresnak landuko dituzte. Hilaren 25eko goizean izango da eta bost ordu iraungo du, 09:00etatik 14:00etara.

Zapatuan ere mallabitar guztiak irekitako tailerra egingo dute, azkena. Saio horretan prebentziora aplikatutako gaitasun emozionalak landuko dituzte, eta erregulazio emozionalerako eta laguntzarako tresna praktikakoak eman. Arratsaldean izango da, 17:30etik 20:00etara.



Plaza erreserbatzeko, eskaneatu QR kode hau.

EZ ESAN!
MALLABIARI BURUZKO
GALDERA-ERANTZUNEN JOKOA
APIRILA



1. Zein da Trabakuatik igaro eta Ermua eta Berriz lotzen dituen errepeidea?

2. Zein da Mallabiko auzorik altuena?

3. Oizko maldetan sortu eta Osma auzotik igaro ondoren, Ego ibaian isurtzen ditu urak. Zein da errekarren izena?

4. Apaiza eta idazlea. Mallabiko kale batek haren izena dauka. Haurgintza Minetan liburua idatzi zuen. Non jaio zen?

5. Mallabiko zein baserritan jaio zen Egoitz Txurruka Txurru telebistako aurkezlea?

Martxoko erantzunak:

1. Astero
2. Deba, Mendaro, Elgoibar, Soraluze, Ermua eta Mallabia
3. Drogeteniturri, Barren, Berriketana eta Pil-pilean
4. Abenduaren 19an
5. Leintz Gatzaga

Irabazlea:
Enara Arronategi



"Auzoarekin lotura handia dauka, eta uste dut hori jendeari ailegatuko zaiola"

UDANE JUARISTI IBAÑEZ ARTISTA

Txurrukenen, Deba ibaiaren bueltan egiten ziren jolasetan oinarritutako irudi-muntaiarekin murala egiten dihardu Udane Juaristi artista azkoitiarrak. Pintura plastikoarekin eta brotxarekin marraztu du horma-irudia, Soraluze Udalaren enkarguz

Udane Madera Zangitu SORALUZE

Udane Juaristi Ibañez *Udatxo* (Azkoitia, 1985) artista murala margotzen dabil Txurrukeneko azken etxearen paretan. Antzianako argazkietan oinarritutako irudia da, auzotarrek ibaiarekin umetan edo gaztetan izan zituzten bizipenen isla. Joan den barikuan hasi eta datorren astean bukatzekoa da.

Zure lanak argazki urbanoetatik abiatzen dira; honek, aldiz, lotura handiagoa du Naturarekin.

Muntaia bat da. Ibili ditut hiru-lau argazki. Etxepekoekin bilera bat egin genuen; euren bizipenak, oroitzapenak kontatu zizkidaten, ibaiarekin lotutakoak: nola mutilek, batik bat, egiten zituzten gurgpilekin txalupa moduko batzuk eta hor ibiltzen zirela, eta nola neskek ibiltzen ziren harriz harri pasatzen. Euren umetako jokoak kontatu zizkidaten, eta hori islatu nahi nuen. Niri txaluparena-eta kontatu zidaten, baina nik ez dudanez hori bizi izan, ez nuen imajinatzen, eta kostatu zen, baina garai hartako pare bat argazki lortu

ziren eta haien bitartez egin nuen irudia.

Koloreak zuk ipini dizkiozu.

Bai; kolorea zuri-beltzarekin nahasten dut sarri, eta detailtxo bati beti sartzen diot fluorra; kasu honetan, arrosa potente hori. Pintura plastikoarekin eta brotxarekin egiten ari naiz.

Argazkien definizio txikiak zaildu egiten du lana, ala?

Bai, argazki zaharra izanda, ez du kalitate handirik, eta definizio txikia dauka. Dena den, nire pintura pintzelkadetan oinarritzen da, zirriborro moduko puntu bat badauka. Akaso, mantxak ikusten dira, baina urrutitik apreziatzen da osotasuna.

Zeu gustura zabilta?

Bai, gainera, ibai ondoan, eguraldi ederrarekin ondo. Toki lasaia da. Herritik kanpora egon arren, jendea badabil begira. 15 bat metro altu da, tamaina polita. Soraluze margotzen dudan lehen paretara da.

Euskal Herriko eta nazioarteko leku askotako paretak dituzu marraztuta; zenbat?



Udane Juaristi, murala margotzen, eguzen goizean. U.M.Z.

Ez dakit, piloa. Euskal Herrian asko ari da mugitzen muralgintza, eta horrek poza ematen du. Hainbeste paretara dago hutsik eta hainbeste artista eta hainbeste kontu kontatzeko... Nik uste dut merezi dutela halako lanek.

Artistendako beste arnagune bat.

Noski. Gainera, horrela, artea kalean lagatzen duzu. Denontzako da. Hori ere inportantea da. Espero dut hona ere jendea etorriko dela. Herri sarreran egonda ere, bertarako egindako zerbait da, auzoarekin lotura handia dauka, eta uste dut lotura hori jendeari ailegatu egingo zaiola.

Baduzu mural kuttunen bat?

Denak dira nire kuttunak. Oroitzapen polita daukat, adibidez, Marokoko bidaiarekin eta esperientziarekin, baina nire mural guztiak maite ditut, nire *seme-alabak* dira eta.

Hemendik nora zoaz?

Koadroak egiteko enkargu batzuk ditut, eta beste mural bat Iparraldean. Han ere sortzen dira gauzak. Herri txiki batera noa, Milafrangara.



Udane Juaristi, murala margotzen, astelehen arratsaldean. U.M.Z.



Muralaren margoketaren lehen eguna, barikuan. EGOITZ UNAMUNO

Ibaia auzolanean garbitzeko hitzordua egin dute biharko, zapatua

U.M.Z. SORALUZE

Soraluzeko Udaleko Ingurumen eta Landa Garapen Departamentuak, Soraluze Bazo Biziak Elkarteak eta Lurgai fundazioak, aurten ere, ibai garbitzeko auzolana antolatu dute herriko beste hainbat eragile eta elkarterekin batera –AEK, Gaztelekua eta Atxolin eta Keixeta guraso elkarteak–.

Bihar, zapatua, da hitzordua. 09:30ean elkartuko dira, Plaza Barrixan, eta herriguneko ibai zatian ibiliko dira garbitzen, bertan plastiko asko dagoelako, besteak beste. Han eguerdi partera arte jardungo dute, ahalik eta zatirik handiena garbitzen.

Antolakuntzak parte-hartzaileei eskatzen die arropa zaharra eta eroso eramateko eta uretan

sartu nahi izanez gero –ez da derrigorrezkoa– gomazko botak edo praka-botk; eskularruak eta lanerako tresnak antolakuntzak ipiniko ditu.

Hamaiketako eta flamenkoa

Bestalde, lanak amaitutakoan, parte hartzaile guztientzat jan-edana eskainiko dute Plaza Barrixan. Eta hamaiketakoaz gozatzeko, Askoa Etxebarrieta Lasheras *La Pulga* artistak ikuskizun flamenko egingo du, 13:00etan. *Ufadak* ikuskizuna ekarriko du Soraluze.

Kiroldegiari eta bere zerbitzuei buruzko asebetetze-inkesta

Arane Udal Kiroldegiak ikastaroerik zein kiroldegiari buruzko gogobetetze-inkestak jarri ditu martxan asteen, erabiltzaileen iritzia ezagutzeko. Apirilaren 26ra bitartean izango da galdegegiak osatzeko aukera, Internetez, *Barrena.eus* zein *Soraluze.eus* atarrietan.

Bi galdetegi prestatu dituzte. Bata da kiroldegia orokorrean

baloratzeko. Instalazioen garbitasuna, norbere esperientzia, komunikazioa... eta bestelako esparruak baloratzen dira hor.

Beste inkesta, berriz, jarduera gidatuak eta zerbitzua baloratzeko da. Azken horren kasuan, jarduera bat baino gehiagotan parte hartzen duten erabiltzaileek ekintza bakoitzeko inkesta bat bete dezakete. Hor, monitoreak, haiek egiten duten lana, eskaintzen duten arreta, giroa, norbere esperientzia... eta bestelako esparruak baloratzeko galderak erantzun behar dira.

Udal Liburutegia, irakurzaletasunaren harrobia

Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira, egitarau oparoa antolatu dute; bestalde, lau irakurle klub abian dira liburutegiaren eskutik

Ubane Madera Zangitu SORALUZE
Eguenean, apirilaren 23an, ospatuko da Nazioarteko Liburuaren Eguna. Egun hori aukeratu zuten, idazle gogoangarri asko hil edo jaio zirelako. Helburua zen liburuari eta haien egileei omenaldia egitea, eta guztiak,

batez ere gazteenak, irakurketaren plazera deskubritzera bultzatzea; halaber, sortzaileek gizarte- eta kultura-aurrerape-nari egiten dioten ekarpenari errespetua erakustea ere bazuen helburu. Gaur egun, ospakizun ugari egiten dira haren bueltan.

Irakurzaletasuna bultzatu
Soraluzeko Udal Liburutegiak ere egitarau oparoa antolatu du: batetik, apirilaren 30era arte abian du *Irakurri eta gozatu* kampania; bestetik, aste honetan Komiki Tailerra egin dute; datorren astean, Hizki Hazka Galtzagorriekin Li-

teratura Aretoa izango da; eta apirilaren 22an, Sormen Lehiaketako eta Irakurketa Erronkako sari banaketa, 17:00etan, antzokian. Segidan, *Korri, Kuru, Korri* txo-txongilo saioa.
Egunaren bueltako ekintza puntualez aparte, Udal Liburu-

tegiak irakurzaletasuna bultzatzeko makinatxo bat ekimen egiten du urte osoan. Esaterako, lau irakurle klub ditu aktibo gaur egun: Euskarazko Irakurle Kluba, Gaztelerazkoa, Haurren Irakurketa Txokoa eta Irakurketa Errazteko Taldea.



U.M.Z.

Euskarazko Irakurle Kluba

2017an hasi zen Euskarazko Irakurle Kluba. Sei lagunekin abiatu zuen ibilbidea, eta gaur egun, batez beste, hogeit hamar irakurzaletan ditu. Bi hilean behin egiten dute. Azken bi urteotan Ainhoa Aldazabal eibartarrak dinamizatzen du taldea, eta, Uxue Agirre liburutegianekin batera, urtean behin, idazle bat gonbidatu eta harekin batera saio berezia egiten dute.



UXUE AGIRRE

Gaztelerazko Irakurle Kluba

Aurtengo ikasturtean izan du estreinaldia Gaztelerazko Irakurle Kluba. Bigarren saioa egin dute, eta "oso ondo" abiatu du ibilbidea, hamabi irakurzaletarekin. Euskarazkoan moduan, bi hiletan behin elkartzen da taldea adostutako liburu bati buruz iritziak partekatzeko. Monica Leiva idazle eta kazetariak gidatzen du Soraluzeko kluba.



UXUE AGIRRE

Haurren Irakurketa Txokoa

Urrian hasi eta maiatzera arte, hilean behin Plaentxi Eskolako HH3-4ko umeak liburutegira joan eta ipuin bat irakurtzen die Uxue Agirre liburutegian. Ondoren, harekin lotutako eskulan bat egiten dute. Azken bi ikasturteotan sasoiari sasoi ipuinak irakurtzen dihardute; adibidez, Inauterietan ipuina irakurri eta txapeltxoak egin zituzten.



U.M.Z.

Irakurketa Errazeko Kluba

Talde horretan Mesedeetako Egoitzako eta Eguneko Zentroko hainbat erabiltzailek parte hartzen dute. Uxue Agirre liburutegian gidatuta, erraz irakurtzeko propio prestatutako liburuak irakurtzen dituzte. Bi hilean behin liburutegian elkartu eta bertan liburuaren lehen kapituluak ozenki irakurri ondoren, nor bere zentroan bukatzen du irakurraldia.

Ate irekiak, ikastaroak eta entzunaldiak, Soralezeko Musika Eskolaren Musika Astean

Maiatzaren 4an hasiko da eta maiatzaren 9an bukatu, Sorafolk topaketarekin

UBANE MADERA ZANGITU SORALUZE

Maiatzaren 4tik 9ra, dozena bat ekitaldi antolatu ditu Soralezeko Musika Eskolak; denetarikoa: umeendako zein helduendako ate irekiak, hiru ikastaro, zazpi entzunaldi eta ipuin musikatua.

Perkusioa, Musescore, Sorafolk

Ikastaroei dagokienez, *Perkusio herrikoia*-rekin hasiko dira. Maiatzaren 4an, astelehena, bi saio izango dira, 7-12 urtekoendako bata eta DBH1etik gorakoendako bestea. Aitor Aranburu perkusio-irakasleak egingo du, perkusioa instrumentuak ez diren bestelako tresnekin egiten; kasu honetan, koilarekin.

Maiatzaren 5ean, berriz, Musescore programaren ikastaroa emango du Domentx Uzinek; partiturak, audioak... idatzi eta sortzen laguntzen duen programa da hori.

Eta zapatuan, maiatzaren 9an, Sorafolk-en hirugarren edizioa egingo dute, John Prieto biola irakasle, Arkaitz Miner biolin irakasle eta Quico Puges biolontxeloko irakasle dituztela. Egun osoko topaketa izango da, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:30era, eta helburua da folk



Musika Eskolako klaustrako irakasleak, eguaztenez. U.M.Z.

musika herrikoia lantzea hari-instrumentuekin. Goizean Musika Eskolan izango dira, gero elkarrekin bazkaltzeko aukera izango dute eta arratsaldean musika emanaldiarekin borobilduko dute topaketa.

Zazpi entzunaldi

Entzunaldiei dagokienez, maiatzaren 5ean, flauta, gaita eta txistu entzunaldiak izango dira Musika Eskolan; maiatzaren 6an, piano, biolin, gitarra, saxofoi, tronpeta, tronboi eta bonbardino entzunaldiak antzokian; eta maia-

tzaren 8an, biolontxelo entzunaldia, hori ere eskolan.

Ate irekiak

Bestalde, bi ate ireki jardunaldi egingo dituzte. Bata Katamarran Haur Txokoarekin elkarlanean, *Musika hezkuntza goiztiarra* izenburupean, maiatzaren 7an. Katamarran bi saio egingo dituzte, 0-1 urtekoendako eta 2-4 urtekoendako. Eta maiatzaren 8an, +5seko herritarrei zuzendutakoak izango dira, musika-elementuak ezagutzera emateko, erritmoak, instrumentuak eta beste.

Ipuin musikatua

Eta, horrez guztiaz gainera, maiatzaren 6an, Dorotea dorka protagonista duen *Anabasa Pentagramaenean* izeneko ipuin musikatua taularatuko dute Herri Antzokian. Bi saio izango dira: goizean, Plaentxi Ikastetxeko ikasle-irasleei zuzendutakoa, 11:30ean; arratsaldean, saio irekia izango da, eta, gurasoez eta tutoreez aparte, nahi duen edozein bertara daiteke.

Musika eta eskola guztiendako

"Musika Astea egingo dugu berrikuntza modura. Nahi dugu neguko lana udaberriaren erakutsi, musika eskolan lantzen ditugun jardura guztien erakusleho modura: musika ikastea, musikaz jolastea, instrumentuak jotzen ikastea, taldeetan jotzea, aisialdiaz musikarekin gozatea, eta erakustea hori egin daitekeela adin mugarik gabe, haur txikietatik hasi eta gazte, heldu, nagusietaraino... Erakutsi musika eskolan edozeinek daukala lekua eta, musika ikasteko gogoia izanda, musika eskolan aukera zabala dagoela, norberari egokituta", esplikatu du Nagore Sanzek, Soralezeko Musika Eskolako zuzendariak.

Debarroa Rugby Klubak Ezoizko zelaian jokatuko du bihar

Debarroa Rugby Taldeak etxean jokatuko du asteburuko liga jardunaldia, Ezoizko zelaian. Ligako zazpigarren postua du jokoan -ligan seigarren postua da garrantzitsuena-, eta gogotsu zelairatuko dira Atletico de San Sebastian taldeari aurre egiteko. 10:30ean hasiko da partidua, zapatuan. Hasiera batean "irabazteko moduko" partidua izango dela espero duten arren, "partiduak jokatu egin behar" direla argi du Enekoitz Igartuak, SoraGazteak Rugby Klubeko entrenatzaileak, eta, beraz, zuhurtziaz egingo diete aurre donostiarrei. Soralezeko, Arrasateko eta Eibarko 17-18 bat errugbi jokalarik osatuko dute bihar Debarroa Rugby Taldea; Soralezetik hiruzpalau izango dira.

Jokoan duten zazpigarren postuari dagokionez, berriz, "pozik" daude denboraldiarekin, baina penaz ere bai, bukatzera doalako. "Orain hasi dira ekipo moduan elkarrekin ondo jokatzen, hobeto elkar ezigutzen", dio Igartuak.

ELIZPE
HORTZ KLINIKA

Tel. 943 75 25 67

Txoko

Eguneko menua, plater konbinatuak, hamburgesak, ogitartekoak, raziok, pizza, gorria...

Enkarguak egiten dira

Tel. 943 75 17 99

IZAGUIRE
Igelseritza

Eraikin berriak - Kalitateko emaitza
Erreforma - Era guztietako Igelseritza

50 urteko esperientzia - 610 638 913

ALBISUA

TAILER MEKANIKOA

Mekanizatutako piezaak Erremintak

Mendiola Industrialdea 14-4 - 161 PK.
Tel. 943 75 21 42 - Fax 943 75 24 12
E-mail: albisua@albisua.net

SORALUZE
MOTOR

Mendiola ind. 13
Soraleze

676 556 817 - 943 75 21 38

Armendi
Jatetxea

Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetan menu berezia
Karta
Burduntzian erretako bidotasa
Etxeko irineak
Souffles

Tel.: 943 75 10 02

MENDIZABAL
okindegia

Ogia - Prentsa - Gosariak

Astelehenetik ostegunera:
08:00 - 13:00
17:00 - 19:30

Ostiralak
08:00 - 13:00
Larunbatak
08:30 - 13:30

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99

aras

zehaztasun handiko piezaak

Mendiola Industrialdea 19
Tel. 943 75 17 30 - 943 75 18 03
Fax 943 75 22 95
aras@tomilleriaras.com
www.tomilleriaras.com

asigor

Terraza, kontzertuak, dardoak...
Ostiraletan pintxopotea

Gipuzkoa etorbidea 1

Batzoki
BAR

Asteburuetako menu berezia, eguneko platera, plater konbinatuak, errazioak, ogitartekoak...

Egunero zabalik

Plaza Zaharra (Soraleze)

Erreserbak:
638 91 15 97

ODR
ATEAK ETA LEIHOAK

Mota guztietako leihoak, pertsiarrok, ateak, barandilak, salnitza eta korporiketa

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA

T. 662 234 809
Sagar Benta Kalea 2 - 30990 SORALUZE
e-mail: odrlehoak@gmail.com

Criado
Fruitategia Unialtegia

Enkarguak Whatsapppe
Eberako zerbitzua
Berriak & delicatessen

Astelehenetik ostirala:
09:00-13:00 eta 17:00-20:00
Larunbatak: 09:00-13:00

629 968 636

MGS
Seguros

Veronica Galarraga
Gertubakoa eta segunua

Astelehenetik ostirala:
20:00 - 13:30 eta 17:00 - 20:30

Santa Ana 13
665 744 055

"Proiektuak erakusten dizu zer den benetan ingeniari-tza"

IBONE MANCISIDOR ETCHEVERRY

FORMULA STUDENT BIZKAIA PROIEKTUKO ARDURADUN TEKNIKOA

Hiru urte daramatza Bilboko Ingeniaritza Eskolaren Formula Student Bizkaia proiektuan barneratuta; Formula motako autoak diseinatu eta eraikitzen dituzte

Izaro Aulestiarte

Industria Teknologiaren Ingeniaritzako Gradua ikasten ari da Ibone Mancisidor (Deba, 2003), eta ikasketak Formula Student Bizkaia proiektuarekin uztartzen ditu, Bilbon. Gustura dabil beti gustuko izan duen munduan murgilduta, "benetako ingeniari-riek bezala lan egiten".

Bilboko Ingeniaritza Eskolan garatzen den proiektua da Formula Student Bizkaia. Zertan datza?

Ikasturtean zehar, ikasleok Formula motako auto bat diseinatu eta hutsetik eraikitzen dugu, eta udan nazioarteko Formula Student lehiaketetara joaten gara, beste unibertsitate batzuen aurka lehiatzera. Ez dira lasterketak soilik, ingeniari-tza lehiaketak dira: epaileen aurrean gure autoaren diseinua, kostua, fabrikazioa eta enpresa-eredua defendatu behar izaten dugu. Horrez gain, ibilgailuak proba dinami-koak egiten ditu eta atal guztietan lortutako puntuak batuz erabakitzen da azken sailkapena.

Auto elektrikoek ari gara?

Gure autoa elektrikoa da, monokaskoa karbono-zuntzez eginda dago, eta gurpil bakoitzean motor bat dauka, ibilgailuaren kontrola ahalik eta gehien hobetzeko. Bestalde, *driverless* proiektu bat ere garatzen ari gara. Kasu horretan, kart autonomo bat diseinatu dugu, eta bertan softwarea eta hardwarea lantzen ari dira. Helburua etorkizun hurbilean teknologia hori gure autoan integratzea da, ibilgailua hibrido bihurtzeko; hau da, gidariarekin edo gidaririk gabe ibiltzeko gai izango den auto bat eraikitzea. Hori izango da datozen urteetan emango dugun aurrerapauso teknologiko handienetako bat.

Noiztik duzu autoekiko zaletasuna?

Betidanik gustatu izan zait ingeniari-tza; batez ere, mekanikoa.

Baina automobilgintzarekiko zaletasuna geroago etorri zen; konfinamendu garaian hasi nintzen lasterketak ikusten, batez ere 1 Formulakoak, eta handik aurrera gero eta gehiago interesatzen hasi zitzaidan.

1 Formulako autoan pertsona bakarra badoa ere, talde-lana ezinbesteko pieza izango da, ezta?

Bai, egia da autoan pertsona bakarra doala, baina auto hori martxan jartzea talde osoaren lanaren emaitza da. Nire ustez, bakoitzak ahal duen guztia ematea da ondo funtzionatzeko gakoa. Kontuan hartu behar da hau lan boluntarioa dela, eta, askotan, minimoarekin ez dela nahikoa... Garrantzitsua da besteekin koordinatzea, laguntzea eta talde osoak helburu bera izatea. Gainera, komunikazio ona eta konfiantza ere oso garrantzitsuak dira. Presiopean lan egiten dugu askotan, epeak estuak direlako, eta halakoetan talde sendo batek egiten du benetako diferentzia. **Zenbat lagun zaudete lantaldean?** 60 inguru izaten gara; aurten, 59. Nire hirugarren urtea da proiektuan. Lehenengo bi urteetan *Chassis* taldean aritu naiz, eta autoaren egitura nagusiaz arduratu gara: monokaskoa,

ergonomia eta atal estrukturalak. Diseinu guztia guk egiten dugu, eta, ondoren, material konposatuekin fabrikatzen dugu; batez ere, karbono-zuntzarekin. Aurten, hirugarren urtean, *Management* taldean nago, zuzendaritzan. *Technical manager*-a naiz, arduradun teknikoa, zehazki arlo mekanikoan eta material konposatuekin lan egiten duten taldeen koordinazioan.

Ez da erraza goi-mailan lehiatzea, baina emaitza onak lortu dituzue nazioartean azken urteotan.

Duela bi urte, Ingalaterrako lehiaketan hirugarren postua lortu genuen, eta iaz irabazi egin genuen. Oso lorpen garrantzitsuak izan dira taldearentzat: batetik, egindako lanaren emaitza delako, eta, bestetik, erakusten duelako gai garestuak goi-mailan lehiatzeko. Hala ere, presio pixka bat ere gehitzen du, emaitza errepikatu eta hobetu egin nahi dugulako. Aurten, helburua da berriz irabaztea, eta ahal dugun guztia egingo dugu horretarako. **Ingeniaritzarena sektore maskulinizatua izan da urte askoan, baita automobilgintzarena ere. Zer diozu?** Ingeniaritza, eta bereziki automobilgintzaren mundua, historikoki nahiko maskulinizatua



Ibone Mancisidor, taldeak iaz lortutako garaikurrarekin. FORMULA STUDENT BIZKAIA

eron da, bai. Baina uste dut hori aldatzen ari dela, gero eta emakume gehiago ikusten dira arlo honetan. Hori nabaria da, unibertsitatean nahiz kanpoan. Pozgarria da ikustea pixkanaka aldatzen ari dela eta gero eta aniztasun handiagoa dagoela.

Zein da zuk zeuk proiektutik ateratu duzun irakaspenik handiena?

Benetako ingeniari-riek bezala lan egiten dugu, gure gaitasunak mugara eramanez. Eskolan ikasitako teoria praktikan jartzea egiten den guztiaren zati txiki bat baino ez da. Ikasten da, adibidez, arazoak konpontzen, tal-

dean koordinatzen, epeak kudeatzen eta erabakiak hartzen informazio guztia ez duzunean. Gainera, akatsetatik ikasten da, eta hori oso garrantzitsua da, benetako proiektuetan bezala. Azken batean, proiektuak erakusten dizu zer den benetan ingeniari-tza: ez kalkuluak egitea bakarrik, baizik eta ideiak aurrera ateratzea baldintza errealetan. Pertsona bezala garatzen laguntzen digu; erantzukizuna hartzen, presiopean lan egiten eta arazoei aurre egiten ikasiz. Prestatuago gaude lan-munduan erronkei aurre egiteko.

"Aurten helburua da berriz irabaztea, eta ahal dugun guztia egingo dugu horretarako"

"Gero eta emakume gehiago ikusten dira arlo honetan; nabaria da, unibertsitatean nahiz kanpoan"



Lantaldeko kideak, Formula motako autoa ikuskatzen. FORMULA STUDENT BIZKAIA

'Zerbait sartu zait begian' eta 'Kay robot' ikuskizunak, asteburuan, Ispiluen gelan

Bihar eta etzi izango dira 'Ispilu(h)ari' programaren baitako emanaldiak

I.A.

Bi kultur ekitaldi antolatu ditu Debako Udalak astebururako: publiko gazte eta helduari zuzendutako performancea eta haurrentzako txotxongilo ikuskizuna, bihar eta etzi, hurrenez hurren. Biak ala biak *Ispilu(h)ari* izenburupean abiatutako kultur programaren baitan egingo dira, doan, Agirre jauregiko Ispiluen gelan.

Bihar, larunbatez, Imanol Epeldek (Zarautz, 1977) *Zerbait sartu zait begian* izeneko ikuskizuna taularatuko du, 18:00etan. Geuretik Sortuak egitasmoari esker, zarautzarrak sormen egonaldi bat egin zuen iaz Ajangiz eta Muxikan (Bizkaia), eta orduan landutakoaren emaitza herriz herri aurkezten ari da azken asteotan.

Spoken word-a, musika elektronikoa eta irudiak uztartzen dituen performance garaikidea da *Zerbait sartu zait begian*. Sortzailearen esanetan, "bizimoduaren abiadura, naturarekiko deskonexioa, zoriontasunaren bilaketa amaigabea, maskulinitatea eta euskara" umorez nahasten ditu lanak, publikoa hunkituz eta hausnarrera eramanez.



Imanol Epelde, agertokian. NOAUA

Eszenan artista bakarra agertzen da, irudiz eta musikaz lagunduta, betiere.

"Komedia ameslaria"

Bestelakoa izango da Ispiluen gelak etzi, igandean, hartuko duen ikuskizuna: *Kay robot*. 17:30ean hasiko da 6 urtetik gorakoei zuzendutako emanaldia.

Ameztu Antzerkia konpainiaren lana da *Kay robot*, "hiperteknologiaren tiraniari buruzko txotxongilo komedia dibertigarria eta ameslaria". Emilio de



Kay robot ikuskizuna. AMEZTU ANTZERKIA

Pinedo da zuzendaria eta David Taboada, berriz, antzezlea. Sinopsiak hauxe dio: "Kay txikitatik da etorkizunaren beldur. Txipez, diodoz eta algoritmoz beteriko etorkizuna. Baina etorkizuna ez dago makinaren eskutik, makinaren eraikitzaileen bihotzetan baizik. Beraz, haren zortzigarren urtebetetzean, robot eraikitzaile bihurtzea erabaki zuen. Baina haren izaki mekanikoak matxinatu egiten dira, eta iraultza robotiko bat sortzen da, gizateria akabatuko duena".

Debako Haurreskolak zabaldu du ikasturte herrirako matrikulazio epea

I.A.

Astelehenean, apirilaren 13an, ireki zuen Debako haurreskolak 2026-2027ko ikasturterako matrikulazio epea, 2025ean eta 2026an jaiotako haurrentzat. Eta, jakinarazi dutenez, familia interesdunek maiatzaren 4ra bitartean aurkeztu ahal izango dituzte eskaerak, Internet bidez zein aurrez aurre, haurreskolan bertan: Anguleru kalea 2.

Funtsean, Debako Udalak nabarmendu duenez, "kalitatezko hezkuntza goiztiarrerako sarbidea erraztea eta txikiengan garapen integrala sustatzea" da 0-2 urte bitartekoei zuzendutako doako zerbitzu publiko horren helburu nagusia.

Edozein zalantza argitzeko edota zerbitzuari buruzko informazio gehiagorako, herritarrek 943 19 20 81 telefono zenbakira deitu edo deba.deba@haurreskola.eus posta elektronikora idatzi dezakete. Halaber, www.haurreskolak.eus webgunean kontsulta daitezke xeheztun guztiak eta bertan egin daiteke, gainera, Internet bidezko izen-ematea.

Ate irekien jardunaldia

Matrikulazio kanpaina abiatu berrikan, asteartean ate irekien jardunaldia egin zuten, herritarrei haurreskolaren azpiegiturak eta hezkuntza programa ezagutzeko aukera emanez.

Herri Urratsera joateko autobusa antolatu du aurten ere Zuhatzak

Maiatzaren 10ean ospatuko da Ipar Euskal Herriko ikastolen aldeko jaia, Senperen, eta bertara joateko autobusa antolatu dute herriko hainbat gurasok eta Zuhatza Debako Euskaltzaleon Mugimenduak. Autobusa 09:00etan abiatuko da Debatik, paseo estalitik, eta 09:10ean jasoko du jendea Itziarko biribilgunean; 19:30ean izango dute

Senperen itzulerakoa. Txartelak salgai daude jada, 10 euroan, Ieraenean eta Burugorriin.

Geroa eraikiz lelopean egingo dute Herri Urrats, eta irabaziak Donapaleun (Nafarroa Beherea) eraikitzeak dute lizeo berriarentzat izango dira; zazpi milioi euro inguruko kostua izango duela aurreikusten dute. Xedearrekin lotuta dago leloa: "Lizeo berriak *geroa* irudikatzen du, eta *eraikiz* hitzarekin, argi geratzen da Herri Urrats jaietan jasotzen den sostengua zertarako erabiltzen den: ikastolak eraikitzeak".

ARGAZKI ZAHARRA

Pilota partida historikoa: bikotea hirukotearen aurka




ALEX TURILLAS ARANZETA
DEBAKO KULTUR ELKARTEKO KIDEA

Indalecio Ojanguren eibartarrarena da 1930eko uztailaren 31n, San Inazio egunean, Euskal Jolas frontoian jokaturako pilota partidari dagokion argazkia. Mariano Juaristi *Atano III.a*-k eta Juan Bautista Azcarate *Mondragones*-ek osatutako bikotea Casimiro Zabalak, Pablo Elguezabal *Kirru*-k eta Justo Juaristi *Artazo*-k osatutako hirukotearen aurka lehiatu zen bertan; bikoteak irabazi zuen (22-18). Bistan

dago jendetza batu zela ekitaldian. Ikusleen artean, lehen planoan, erdian, mikelete bikote bat ageri da, eta pixka bat eskuinerago, bi apaiz. Kantxaren amaieran eta albo batean, berriz, apustu artekariak ikus ditzakegu.

Frontoia 1897an inauguratu zuten. Hasieran, zumardira irekia zegoen eskuinean, artean ez baitzegoen gaur egun eremua ixten duen etxebizitza blokerik. 1947ko maiatzean, Udalak Gipuzkoako Gobernu Zibilarekin negoziatu zuen lurrak Obra Sindical del Hogar erakundeari lagatzea, *Grupo San Roque* izeneko etxebizitza babestuen multzoa eraikitzeke.



Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko kultur egitarau zabala prestatu dute

Sari banaketak, ipuin kontaketak, aurkezpenak eta errezitaldiak iragarri dituzte

I.A.

Apirilaren 23an izango da Liburuaren Nazioarteko Eguna, eta, beste urte batez, ekitaldi bereziak egingo dira Deban ospakizunaren bueltan. Egitaraua hilaren 23an bertan hasiko da, ostegunez, baina larunbat goizean ere izango dira jarduerak aukeran.

Debako Udalak bi hitzordu iragarri ditu aurten Liburuaren Egunerako: goizean, 11:30ean, ikasleei zuzendutako VI. Ilustrazio eta ipuin lehiaketaren sariak banatuko dituzte, udal-tertxeko osoko bilkuren aretoan; arratsaldean, berriz, *Deba ehun hitzetan* lehiaketari dagozkionak, Ispiluen gelan, 19:00etan.

Egun berean, baina Liburutegia Denontzat taldearen ekimenez, Alberto Bargos ipuin kontalariak *Kiribil doktorea animaliak salbatzera* saioa egingo du, 17:30ean, Kultur Elkartean. Eta,



Debako Kontalariak eta Rafael Bravo izango dira, besteak beste, Kultur Elkartean. A.T.

kontaketa ondoen, bertaratu-tutakoendako tailerra egingo du Kultur Elkartearen liburutegian.

Antolatzaileek azaldu dutenez, hori izango da Liburutegia Denontzat taldeak antolatzen duen azken ekintza. "Ekimen horrekin,

taldeak zeukan helburua lortu genuela ospatu [liburutegiko ordutegia berbera izatea denontzat, beharrezkoa zenean karroekin sartu ahal izatea, eta 0-2 urteko umeak ere liburutegian egon ahal izatea] eta egindako

ibilbidean zehar jaso dugun elkartasuna bueltan eman nahi diogu Debako herriari, ipuin kontaketa formatuan", adierazi dute taldekideek.

Proposamen hirukoitza

Bestalde, aurreko urteetan bezalaxe, aurten ere literaturzaleentzako topagune bihurtuko da Debako Kultur Elkartearen Liburuaren Eguna bueltan. Oraingo honetan, ipuinak eta poesia ardatz hartuta, proposamen hirukoitza prestatu du apirilaren 25erako, adin guztietako publikoa erakarri nahian.

Ekitaldia 11:00etan hasiko da, Debako Kontalariak helduentzat zein haurrentzat egingo duten ipuin kontaketaekin. Ondoren, hainbat literatur sariren jabe Rafael Bravo idazle debarrak *Solsticio de invierno*, *Teoria del epílogo* eta *Mañana es todavía* poesia-liburuak aurkeztuko ditu. Eta, hitzordua biribiltzeko, poesia errezitaldia egingo dute Maite Lorezok, Lourdes Dominguezek eta Marta Ugartecheak. Aurreikuspenen arabera, orotara bi ordu inguru iraungo du ekitaldiak.

Bihar jokatuko da 56. Anes Arrinda haur krosa, zumardian

Bihar, hilak 18, 17:00etan hasita, HH5 eta LH6 arteko ikasleei zuzendutako Anes Arrinda krosa izango da zumardian. Antolakuntzak jakinarazi duenez, 138 ikasle daude dagoeneko izena emanda, eta oraindik aukera dagoela gogorarazi dute, debakrossa@hotmail.com helbidera idatzita; gaur da horretarako azken eguna.

Irteera eta yoga saioa familian, Izan Tribu egitasmoaren baitan

Hilaren 26rako, Santa Katalinara irteera eta HH4 eta HH5eko familiei zuzendutako yoga saioa egiteko proposamena dakar Zuhazta Debako Euskaltzaleon Mugimenduak sortutako Izan Tribu egitasmoak. 10:00etan Foruen plazan elkartuko dira, eta handik abiatuko da txangoa. Izena emateko epea hilaren 22ra arte da, barrena.eus/izantribu atarian.

Barrena astekaria DOAN jasotzen jarraitu nahi duzu?

DEBA-ITZIAR

Apirilaren 17tik aurrera astekaria etxean jasotzeko ezinbestekoa izango da eskaera-orria betetzea

*Zuhatzako bazkide bazara ez daukazu eskaera-orria bete beharrik

Eman izena!

☎ 632 04 33 22 ☎ 943 19 13 83

📍 Eskaera-orria online bete:

barrena.eus/harpidetzak



IRAGARKI SAILKATUAK

LANA

LAN-ESKAINTZAK

Elgoibar. Mintxetako eta Olaizaga kiroldegiko harreraren lan egiteko langilea behar da, maiatzaren 2tik urriaren 2ra. 17,72 ordu astean. Maiatzean eta urrian, asteburuak; ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean, astegunetan eta asteburuetan arituko nahasketa. 663 45 65 27 / aazpiazu@emtesport.com

Elgoibar. DBH4ko ikasle bati etxean Matematika eta Ingeles eskolak emateko norbait behar dugu. Astelehen eta asteazkenetan, bi ordu egun bakoitzean. 656 77 42 15

Elgoibar. Emakume euskaldun heldu baten bila gabiltza, bi haur ikastolara eramateko eta/edo hartzeko. Egunean 1,5 ordu. 699 18 37 90

ESKAERAK

Elgoibar. Lan bila. Esperientzia handia adinekoak zainduz, baita konpontze eta margotze lanetan. Mugikortasunerako erraztasunak. 603 72 70 67

Elgoibar. Asteburuetan adinekoak zaintzeko prest nengoke; esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut. Etxeko langile moduan ere bai. 642 57 89 43

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. Asteburuetan ere bai. 632 04 01 71

Elgoibar. Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egiten ditut. Berehala hasteko moduan nago. Titulu soziosanitarioa daukat, eta paperak, legez. 641 32 24 73

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulu soziosanitarioa eta esperientzia ditut. 641 75 62 13

Elgoibar. Lan bila nabil. Adinekoak zaintzen esperientzia daukat. Malgutasun osoa. 600 68 19 41

Elgoibar. Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Margotze, iturgintza... lanak egiteko ere prest nago. 603 72 70 67

GARAJEAK

Elgoibar. Garajea hartuko nuke alokairuan, Santa Ana kalean. 679 81 62 58

ZORION AGURRAK



ELGOIBAR

Sara

Zorionak, Sara. Oso ondo ospatu genuen zure urtebetetzea. Asko maite zaitugu. Familiako eta, bereziki, Laiaren partez.



ERMUA

Libe eta Diana

Zorionak, Libe! 7 urte bete dituzu! Zorionak, Diana! 42 urte bete! Ondo pasa zuen egunean. Asko maite zaituztegu. Musu erraldoi bat, amamaren, Luciaren eta aitaxoren partez. Biba zuek!



SORALUZE

Elene

Zorionak, Elene! Primeran ospatu genuen zure eguna. Muxu erraldoi bat, etxeko guztien partez.



MALLABIA

Gaizka

Zorionak, bihotza. Segi gure egunak alaitzen salero horrekin. Asko maite zaitugu.



MENDARO

Libe

Zorionak, Libe, ostegunetan 10 urte bete zenituelako. Asko maite zaitugu, artista!



DEBA

Nerea

Hemen gure ondarrutarra, elegante-elegante! Ahaztu txarrak, eta abante! Ondo-ondo pasa zure urtegunera, Nerea, lankideon partez.



SORALUZE

Loritz

Zorionak, amatxo!



MENDARO

Lur

Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasa genuen zure egunean, Lur. Etxeko eta lagunaren partez, muxu handi bat.



SORALUZE

Joanes


Zorionak, Joanes, apirilaren 12an 5 urte egin zenituelako. Etxeko partez.



ELGOIBAR

Nahia

Nahia maitea, zorionak! Amamaren eta Elgoibarko familiaren partez. Maite zaitugu; besarkada handi bat eta muxu asko zuretzat.



ELGOIBAR

Jon

Zorionak, Jon! Atzo 8 urte handi bete zenituen. Muxu eta besarkada bero-beroak, familiako guztien partez. Asko maite zaitugu!



SORALUZE

Maira

Zorionak, Maira! Asko-asko maite zaitugu! Iron, aita eta amatxo.



SORALUZE

Markel

Zorionak, maitxia! Asko maite zaitugu! Mila muxu, bitxito! Aita, ama, Ekain eta Estu.



SORALUZE

Ekain

Zorionak, Ekain!



SORALUZE

Maria Jesus

Zorionak, amama!

Iragarkia jartzeko

943 744 112

sailkatuak@barrena.euswww.barrena.eus/sailkatuak

- Asteazkeneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- BARRENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.
- Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu.

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- 'Barrena.eus'-en erabiltzailea sortu eta barrena.eus/zorionagurra helbidean sartu.
- Mezua bidali herrietako erredakzioetara edota Whatsappez 688 65 56 58 zenbakira edo e-postaz zorionagurra@barrena.eus. Zehaztu izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta testua.
- Etorri edo deitu gure betiko egoitzetako batera.

Barrena

BATZEN GAITUENA

Jarraitu Debabarreneko aktualitatea



SORALUZE

Juan Ignacio Alberdi Barrenetxea

2026ko apirilaren 12an hil zen, 83 urte zituela.

Soraluze Futbol Taldearen
lehen zuzendaritzako partaide izan zinen.
Eskerrik asko egin zenuten lanarengatik.

Soraluze FT



SORALUZE

Ignacio Alberdi Uriguen

2026ko apirilaren 10ean hil zen, 83 urte zituela.



*Ezoziko soroetan artoa loratzen denean,
elizako kanpaiak entzuten direnean,
txantxangorria etxe ondora datorrenean,
sentituko zaitugu gurekin.*

Etxekoak

ELGOIBAR

VI. urteurrena

Oier Etxaniz Beneitez

2020ko apirilaren 17an hil zen, 31 urte zituela.

Zaila da onartzea
inoiz ez zaitugula berriro ikusiko.
Hala ere, Oier, bizi garen bitartean,
ez zaitugu inoiz ahaztuko.



Etxekoak



ELGOIBAR

Mari Angeles Zialtzeta Arregi

2026ko apirilaren 1ean hil zen, 85 urte zituela.



Zu, ama, izan zera
gu ondo ulertu gaituzun ama.
Baserritar oso-osoa,
ogi ta gazta egile ona.
Baratza ta lore zalea
ta loretxo bat bezela
itzali zera.

Etxekoak

ELGOIBAR

IX. urteurrena

Jose Ignacio Sarasua Garate

2017ko apirilaren 11n hil zen, 60 urte zituela.

Nahiz eta urrun joan mundu honetatik,
ez duzu alde egingo gure bihotzetatik.

Etxekoak



ELGOIBAR

VI. urteurrena

Maria Asuncion Mendikute Zubiaurre

2020ko apirilaren 21ean hil zen, 71 urte zituela.



Zure argia ez da sekula itzaliko gure bihotzean,
gure gogoan biziko zara beti.
Maite zaitugu.

Etxekoak

ELGOIBAR

IX. urteurrena

Jose Ignacio Sarasua Garate

Zure oroimenak indartzen gaitu.



ETXEBERRIA
EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)
635 756 295 - 629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Norbanakoel eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentroetan zerbitzuak.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943 74 41 12 | barrena@barrena.eus

OSTIRALA 17

- **SORALUZE Tailerra: 'Dieta orekatua'** Soraluzeko Nagusien Kontseiluak Kontsumobiderekien elkarlanean antolatuta. Kalebarren 8an, 10:00etan.
- **DEBA Erakusketa: 'Palestina: ibilbide historikoa gaur egungo genozidioraino'** Deba-Palestina herri ekimenak antolatuta. Santa Maria elizako klaustroan, 17:00etatik 19:00etara.
- **ELGOIBAR Antzerkia: 'Kolapsoa'** Herriko Antzokian, 19:00etan.
- **SORALUZE Erakusketa: 'Vitalia Samuilova: ¿Quién lleva a quién?'** Oreka Art galerian, 19:00etan.
- **ERMUA 'Le salon des mots' frantseseko irakurketa kluba** Cyrano de Bergerac (Edmond Rostand). Liburutegian, 19:00etan.
- **ELGOIBAR Gaueko zerua ezagutzeko irteera** Gure Natura Ezagutzen egitasmoaren barruan, gaueko zerua ezagutzeko irteera antolatu dute Atxutxiamaikak, Morkaikok eta Baso Biziak-ek elkarlanean. Jokin Martinez izango da hizlaria. 20:30ean batuko dira, Idotorben

afaltzeko, eta 21:30ean hasiko da hitzaldia. Prismatikoak eta linterna eramateko gomendioa egin dute antolatzaileek.

- **ERMUA Sustrai ZirKuSS taldea** Ermua Antzokian, 20:30ean.
- **ELGOIBAR Erakusketa: Carlos Fernandez zenaren lanak** Kultur Kafea tabernaren ordutegian egongo da zabalik, hilaren 26ra arte.

LARUNBATA 18

- **SORALUZE Ibai garbiketa** Soraluzeko Baso Biziak-ek eta Lurgai Fundazioak herriko beste eragile batzuekin elkarlanean antolatuta. Plaza Barrixan, 09:30ean.
- **DEBA Marearteko zabalgunera bisita gidatua** Errotaberri parkingean, 10:00etan.
- **ERMUA 'La voz de la poesía' pertsona helduentzako poesia tailerra.** Liburutegian, 11:00etan.
- **DEBA Erakusketa: 'Palestina: ibilbide historikoa gaur egungo genozidioraino'** Deba-Palestina herri ekimenak antolatuta. Santa Maria elizako klaustroan, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.



ERMUA Euskal Jaia

- **LARUNBATA 18:** Txindurri eta Mendi Harana dantza erakustaldia, 19:00etan. Altza Porru! erromeria, 20:00etan. Larrain dantza, 22:00etan. Ekitaldi guztiak, Orbe kardinalaren plazan.
- **IGANDEA 18:** Kalejira herriko kaleetan, 11:00etan. Dantza erakustaldia, 12:30ean. Dantza gidatu saioa, 16:30ean. Plaza dantza Ttipia taldearekin, 17:30ean. Ekitaldi guztiak, Orbe kardinalaren plazan.

- **SORALUZE Ikuskizuna: 'La Pulga: Ufadak'** Flamenko ikuskizuna. Plaza Barrixan, 13:00etan.
- **MALLABIA Basondora irteera** Mallabiko Udalak antolatutako irteera horretan, txikiak natura-ingurunea eta animaliak gertutik ezagutzeko aukera izango dute. Irteera-lekua, Petriren, 15:45etik 19:00etara.
- **MALLABIA Yum Yardera bisita** Mallabiko Udalak antolatutako bisita horretan, nerabeek Yum Yardeko instalazioetara egingo dute irteera, non jarduera fisiko eta dinamikoak izango dituzten. Irteera lekua, Petriren, 15:45etik 19:00etara.
- **MENDARO Kilimon Trail mendi lasterketa** Mendaroko Txirrindulari Elkarteak eta Lizarpe Mendi Klubak antolatzen du eta bi proba izaten dira aukeran: laburra, 11 kilometrokoa, eta luzea, 23koa. Herriko Enparantzan, 16:00etan.
- **MENDARO Eskolarteko txirrindulari lasterketak Erramone industrialdean** 16:30ean itxiko da industrialdea, eta 17:00etan hasiko dira lasterketak.

Antolatzailea: Elgoibarko Lagun Taldea

- **ERMUA Erresina eta Tote Bag Gazte Tailerra** 2009-2013 urteen artean jaiotakoentzat. Doakoa. Liburutegian, 17:00etan.
- **ITZIAR Gipuzkoako 55. hiru txirilo bola joko txapelketa** Lasturko bolatokian, 17:00etan
- **DEBA 56. Anes Arrinda haur krosa** HH5-LH6 bitarteko haurrentzat. Calbeton zumardian, 17:00etan.
- **SORALUZE Hitzaldia: 'Kontzientzia eta gorputza'** 12 eta 16 urte arteko nerabeei zuzenduta. Gaztelekuan, 17:00etan.
- **ERMUA Ipuin kontaketa: 'Patchwork Stories'** Hannah Berryren eskutik 2016-2021 urteen artean jaiotakoentzat. Udal liburutegian, 17:30ean.
- **DEBA 'Zerbait sartu zait begian' ikuskizuna** Imanol Epelderen performancea. Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 18:00etan.
- **SORALUZE Afari-merienda Errege koparen finala ikusteko** Duo Amanecer taldeak rantxerak eta boleroak kantatuko ditu.

Ondoren, parrillada egingo dute, Espainiako Errege Kopako finala ikusi aurretik. Asigor tabernan, 18:00etan.

- **ELGOIBAR Realaren Kopako finala pantaila handian** Maalako parkean, 19:00etan.
- **MENDARO Errege Kopako finala pantaila handian** Udaletxeko sarreran, 21:00etan

IGANDEA 19

- **ELGOIBAR Jose Gurrutxaga krosa** Elgoibar

MALLABIA Zazpi Pago lasterketaren ibilbideak

LARUNBATA 18: Zazpi Pago lasterketaren ibilbideak ezagutzeko irteera. Ibilbideak egiteko bi erritmo. Biak ere Mallabiko plazan hasiko dira.

Ibilbide laburra oinez: 08:00etan.

- 1 erritmoa: 1:45h
- 2 erritmoa: 2:30h

Ibilbide luzea korrikari: 09:00etan.

- 1 erritmoa: 3:00h
- 2 erritmoa: 4:00h

Ikastolak antolatuta. Kalegoen plazan, 10:00etan.

- **DEBA Mendi irteera ikasleekin: Deba-Urkamendi-Mutriku-Deba** Burdin-Kurutzeko kideek Kanboko mendizaleekin batera egingo dute irteera. Goiz-pasa izango da. Foruen plazan, 10:30ean.
- **SORALUZE Topaketa: 'Gure ipuin kuttunak'** Katamarran ume-txokoak antolatutako topaketa, kideentzako. Katamarran ume-txokoan, 11:00etan.
- **DEBA Erakusketa: 'Palestina: ibilbide historikoa gaur egungo genozidioraino'** Deba-Palestina herri ekimenak antolatuta. Santa Maria elizako klaustroan, 12:00etatik 14:00etara.
- **DEBA Musika Eskolako ikasleen kontzertua** Tafallako talde batekin batera egingo dute emanaldia. Elizan, meza ondoren.
- **DEBA 'Kay robot' txotxongilo ikuskizuna**



ATXUTXIAMAIAKAREN
UDAKO OPORRALDIA 2026

HH2 - HH5

Izen-ematea:
Apirilaren 17tik maiatzaren 8ra

On-line izena emateko:
www.atxutxiamaika.eus webgunean

Aurrez aurre:
Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunearen bulegoan
(Aita Agirre 3, 3.ezkerra, ELGOIBAR)

TXOKOAK:

Asteleheneetik ostiralera
Ordutegia: 09:30 - 13:00

TXANDAK ETA KUOTAK

1.Txanda:
ekainak 22 - uztailak 2, 88€ (79€ bazkideek)

2.Txanda:
uztailak 6-17, 88 € (79 € bazkideek)

BI TXANDAK:
ekainak 22 - uztailak 17, 166€ (150€ bazkideek)

UDALAREN DIRULAGUNTZAK

Maiatzaren 11tik ekainaren 11ra,
H.A.Z.-en (Udalaren
Herritarren Arreta Zerbitzua),
943 74 10 50 telefonoan
edota gazteria@elgoibara.eus



6 urtetik gorakoentzat gomendatua. Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 17:30ean.

- **MENDARO 'La cosa' antzezlana** Gaztelaniaz eta 12 urtez gorakoei zuzenduta. Doan. San Agustin kulturgunean, 18:30ean.

ASTELEHENA 20

- **SORALUZE Literatur aretoa: 'Hizki hazka'** Soraluze udal liburutegiak liburuarren egunaren baitan antolatutako ekintza, Galtzagorriren eskutik. Erakusketa aretoa, 09:00etatik aurrera.
- **SORALUZE Pentsiodunen mugimenduaren elkarretaraztea** Plaza Barrixan, 11:45ean.
- **DEBA Pentsiodunen mobilizazioa** Foruen Plazan, 12:00etan.
- **DEBA Diabetesaren prebentzio eta eguneroko kudeaketari buruzko tailerra** Arbil Elkarte Sozialak antolatutako saioa eta Osakidetzako profesionalek emango dute. Arbil elkartean, 16:00etan.

ASTEARTEA 21

- **ELGOIBAR Zaintzako eta etxez etxeko lanei buruzko aholkularitza zerbitzua** Bakarkako saioak. Doan. Beharrezkoa da aurretik hitzordua hartzea. 688 64 09 83/ elgoibarzaintza@gmail.com. Elgoibarko Lila Emakumeen Etxean, 16:00etan.
- **ELGOIBAR Erorketak saihesteko tailerra** Jubilatuen Biltokian, 16:00etan.
- **DEBA Hitzaldia eta liburu aurkezpena: 'El negocio del ritmo'** Hizlaria: Jorge Sanchez. Hizkuntza: Gaztelania. Debako Kultur Elkartean, 19:00etan.

ASTEAZKENA 22.

- **SORALUZE Nagusien Kontseilua** Kalebarren 8an, 10:00etan.
- **MENDARO Nekazaritzako ibilgailuen azterketa**

teknikoa Lili parean, 12:00etan.

- **ELGOIBAR Erorketak saihesteko tailerra** Jubilatuen Biltokian, 16:00etan.
- **SORALUZE Sari-banaketa: 41. Sormen Lehiaketa eta Irakurketa Erronka 2025-2026ko** ikasturteko Irakurketa Erronkako sari-banaketa ekitaldia. Ondoren, Pantzart antzerki konpainiak *Korri, Kuru, korri* emanaldia egingo du. Herri Antzokian, 17:00etan.
- **SORALUZE Ahalduzte eskola: 'Ongizate emozionala eta autozainketa'** Kalebarren 8an, 18:00etan.
- **ELGOIBAR Treba Nerabeak: 'Zer dakizu sexualitateaz?'** Gaztelekuan, 18:00etan.
- **ELGOIBAR Hitzaldia: 'Zure burua maitatu, zaindu eta zoriontsu izan'** Lore di Salagirekin, Lilan, 18:00etan.
- **ERMUA 'Un capítulo más' gaztelerako irakurketa kluba.** Liburutegian, 19:00etan.

OSTEGUNA 23

- **DEBA Hitzaldia: 'Zinea gaur egun: kantitatea, bariatatea eta kalitatea'** Arbil Elkarte Sozialak antolatuta. Hizlaria: Jose Luis Rebordinos, Donostiako Zinemaldiko zuzendaria. Kultur Elkartean, 11:00etan.
- **DEBA VI. Ilustrazio eta ipuin lehiaketaren sari-banaketa** Udaletxeko osoko bilkuren aretoa, 11:30ean.
- **ELGOIBAR Aisialdi eskaintza** Bolatokian, 16:30ean.
- **DEBA Alberto Bargosen ipuin kontaketa saioa: 'Kiribil doktorea animaliak salbatzera'** Liburutegia Denontzat taldeak antolatutako saioa. Ondoren, tailerra Kultur Elkarteko liburutegian. Debako Kultur Elkartean, 17:30ean.
- **MENDARO Mendaroko ibilbide osasungarrien sare berria diseinatzeko bilera** Udaletxeko udalbatza-aretoa, 18:30ean.



ELGOIBAR Porrotx eta Marimotots

OSTIRALA 24: Porrotx eta Marimotots pailazoak Elgoibarko Herriko Antzokian izango dira. *Zerua lapurtu dute* izeneko ikuskizuna taularatuko dute, eta bi saio egingo dituzte: 17:00etan lehenengoa eta 19:00etan bigarrena.

- **ELGOIBAR Pintxoconcert** Musika Eskolak antolatuta, herriko hainbat gunetan kontzertuak egingo dituzte musika eskolako musikariek. Lekuederren, 18:30ean.
- **DEBA 'Deba 100 hitzetan' lehiaketaren sari-banaketa** Ispiluen gelan, 19:00etan.
- **ELGOIBAR Isiltasunaren eskola** Jose Cruz Igartuak emango du. Kultur Etxean, 19:00etan.

OSTIRALA 24

- **ELGOIBAR Nekazaritzako ibilgailuen azterketa teknikoa** Mintxetako aparkalekuan, 09:00etan.
- **DEBA Hitzaldia: 'Eta hitz egiten dugun bitartean kafe bat hartzen badugu?'** Debako Gurutze Gorriaren jarduna ezagutarazteko helburuz antolatutako ekimena —65 urtetik gorakoentzat—. Gurutze Gorriaren lokalean, 17:00etan.
- **ELGOIBAR Hitzaldia: 'Tresnak eta estrategiak etxean mugikorra nola erabili lantzeko'** Elgoibarko Amataumobila taldeak antolatuta, Telmo Lazkanok hitzaldia egingo du sakelako telefonoak etxean modu egokian erabiltzen ikasteko. LH4 eta DBH1 arteko familientzako saioa izango da. Aita

Agirren, areto nagusian, 17:30ean.

- **MALLABIA Suizidioaren prebentziorako eta osasun emozionala sustatzeko jardunaldia** Mallabiko Udalak antolatutako saio horretan, haurtzaroen eta nerabezaroen gertatzen den ondoez emozionala ulertzeko gakoak landuko dituzte, alerta-seinaleak identifikatzeko baliabideak eman eta familia-komunikazioa indartzeko estrategiak jorratu. Kontzejuzarran, 18:00etan.
- **ELGOIBAR Zazpigarren Arteari buruzko kafetertulia** Haizeak antolatuta eta Lore di Salagik gidatuta. Elgoibarko Lila Emakumeen Etxean, 18:30ean.
- **SORALUZE Erakusketa: 'Vitalia Samuilova: ¿Quién lleva a quién?'** Oreka Art galerian, 19:00etan.
- **DEBA Euskal presoan eta iheslarien giza eskubideen aldeko mobilizazioa** Foruen Plazan, 19:30ean.
- **DEBA KulturEkin: Jurgi Ekiza** Sarrera, 6 euro. Internet bidez salgai: labur.eus/ekizakulturekin. Debako Kultur Elkartean, 20:00etan.
- **ERMUA Kontzertua: Janus Lester** Ermua Antzokian, 20:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

- 17 BARIKUA Arriola / A. Zalduegi
- 18 ZAPATUA Fernandez / *Garitaonandia / A. Zalduegi
- 19 DOMEKA Fernandez / A. Zalduegi
- 20 ASTELEHENA Yudego / L. Apraiz
- 21 MARTITZENA Oruesagasti / L. Apraiz
- 22 EGUAZTENA Barrenetxea / L. Apraiz
- 23 EGUENA Soto / L. Apraiz
- 24 BARIKUA Garitaonandia / Lasuen-Elezgaray / *09:00-14:00 / *09:00-13:30

2026KO BOTIKA ORDUTEGIAK, ASTELEHENETIK OSTIRALERA:

- Deba: 09:00-13:45 / 16:30-19:30
- Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-13:00 / 16:00-20:00
- Ermua-Mallabia: 09:00-13:30 / 16:30-20:00
- Mutriku: 09:00-13:30 / 16:45-20:00
- Itziaroko botikina: 09:00-12:30

GUARDIA ORDUTEGIAK

- Egunez:** 09:00-22:00
- Gauetz:** 22:00-09:00
- Eibarren urte guztian, eguneroko: Elortza (Juan Gisasola, 18-Eibar. 943 206 100)
- Larunbatak:** Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-14:00
- Deba-Mutriku: 09:30-13:00
- Ermua-Mallabia: 09:00-13:30
- Igandeak eta jaiegunak:** Deba-Mutriku: 11:00-13:00

FARMAZIAK

- DEBA A. ZALDUEGI:** Lersundi, 20 - 669 26 22 01
- DEBA H. BURGOA:** Astillero, 2 - 667 33 88 90
- ELGOIBAR ARRIOLA:** Santa Ana, 1 - 943 74 01 40
- ELGOIBAR BARRENETXEA:** Errosario, 26 - 943 74 12 77
- ELGOIBAR GARITAONANDIA:** Uparitzaga, 5 - 943 74 11 77
- ELGOIBAR YUDEGO:** San Frantzisko, 18 - 943 74 12 93
- ERMUA A.M. BAZ:** Zearkale 2 - 943 03 17 03
- ERMUA M. ALVES:** Gipuzkoa etorbidea, 46 - 943 17 26 66
- ERMUA A. ALCALA:** Zubiaurre, 29 - 943 17 17 54
- ERMUA I. LECUMBERRI:** Zubiaurre, 9 - 943 17 00 97
- ERMUA M.I. UGARTE:** Goienkale, 11 - 943 17 05 26
- MALLABIA E. ARRONATEGI:** Mallazpi z/g - 943 17 24 14
- MENDARO FERNANDEZ:** Herriko Eparantza, 4 Garagartza - 943 75 61 42
- MUTRIKU LASUEN-ELEZGARAY:** Txurruka Tenienteak, 3 - 626 61 13 92
- MUTRIKU L. APRAIZ:** Erdiko kalea, 5 - 630 05 50 97
- SORALUZE SOTO:** Rekalde, 1 - 943 75 16 38
- SORALUZE ORUESAGASTI:** Kalebarren, 9 - 943 75 13 84

ZINEMA

ELGOIBAR

HERRIKO ANTZOKIA
'Torrente presidente'
 Larunbata, 18: 19:00, 22:15
 Igandea, 19: 19:00
 Astelehena, 20: 21:00
'Tafiti eta lagunak'
 Larunbata, 18: 16:30
'Historias del buen valle'
 (Ongarri zinekluba)
 Asteazkena, 22: 21:00

ERMUA

ERMUA ANTZOKIA
'Caminando con el diablo'
 Larunbata, 18: 19:30
 Astelehena, 20: 20:30
'Amarga Navidad'
 Larunbata, 18: 22:00
 Igandea, 19: 19:30
'Super Mario Galaxy: La película'
 Igandea, 19: 17:00
'El último vikingo'
 (Zinekluba)
 Osteguna, 23: 20:30

DEBA

KULTUR ELKARTEA
'Todo saldra bien'
 Igandea, 19: 19:00

EIBAR

COLISEO ANTZOKIA
'Noche de bodas 2'
 Larunbata, 18: 17:00, 19:45, 22:30
 Igandea, 19: 17:00
 Astelehena, 20: 19:30
'Te van a matar'
 Larunbata, 18: 17:00, 19:45, 22:30
 Igandea, 19: 20:00
 Astelehena, 20: 19:30
'Calle Málaga'
 Larunbata, 18: 22:30
 Igandea, 19: 20:00
 Astelehena, 20: 19:30
'Super Mario Galaxy, la película'
 Larunbata, 18: 17:00, 19:45
 Igandea, 19: 17:00

AZKEN BERBA

Hiru egun, bi hiri



ARKAITZ URANGA
ITZULTZAILEA

Zenbat aldiz bilatuko ote zen *Zer ikusi (hiriaren izena)n egun batean* azken asteotan?

Udaberriko oporraldia nahiko sasoi ohikoa izaten da bidaiak egiteko, baina esango nuke azken urteetan asko aldatu dela bidaiaria horiek egiteko modua – batik bat, gazteontzat –.

Nire teoriaren arabera, bi faktore nagusik eragin dute hori: alde batetik, bidaiatzearen demokratizazioak. Iraganean, bidaiatzea luxua zen, gutxi batzuentzat eskuragarria, edota denbora luze-luzez aurreztu ondoren har zenezakeen kapritxoa. Gaur egun, ordea, sentsazio edo pentsaera orokorra da edonor irits daitekeela munduko edozein bazterretara – Internetek, sare sozialek eta hedabideek ideia hori zabaldu dutelako –. Beste aldetik, gazteon egoera ezegonkorra dago. Gero eta bizi-baldintza okerragoak pairatzen ditugun heinean, gero eta ezinezkoagoa ikusten dugu etorkizunera begirako bizitzaplan egonkor bat eraikitzea.

Horren aurrean zer egin? Ba, esku artean ditugun diru eta baliabide apurrak momentuko gozamenara bideratu. Hori bai, xahutze handirik gabe: hiru egun bi hiri ikusteko, 06:10eko hegaldia hartu, motxilan gordetako ogitartekoa jan, egunean 20 kilometro egin oinez, eta komun partekatua duen ostatuan lo egin.

Bost bat mila banderatzko josteari ekin diote Mendaron, santanetan kaleak apaintzeko

In Leike elkartearena da ekimena, eta hainbat eragile batu dira proiektura

Ainara Argoitia MENDARO

Santa Ana jaietan herriko kaleak apaintzeko banderatzkoak josteari ekin diote Mendaroko Josi Ta Josi taldekoek In Leike kultur elkartearen atzerkipean. Erronka handia jarri diote beren buruari, herri osorako 5.000 banderatzko inguru beharko dituztela aurreikusitakoak eta. Ehun guztiek, baina, ez dute jauskera bera izaten, eta, apaingarriek gorputz bat izatea komeni denez, doblean josten ari dira. Beraz, 5.000 barik, 10.000 dira gutxienez moztu beharreko oihal zatiak, binaka-binaka josteko. Astearte eta asteazkenetan batzen dira Josi Ta Josi taldekoak udaletxeko hirugarren solairuan lanerako, eta, ekimen horren harira, beste zenbait herritar ere batu zaizkie. "Denak dira ongietorriak hemen", zehatu du Dorleta Lazarobasterrek, In Leike elkarteakoa.

Itziartik ekarri dute ideia. "Han ikusi, gustatu, eta proposatu egin nuen taldean", azaldu du. Beste jende batekin elkartu, esperientziak trukatu eta komunitatea indartzeko helburuarekin sortu zuen In Leike kultur elkarteak Josi Ta Josi taldea bera ere, eta ekimen horrekin ere horixe dute helburu, hein handi batean: ekimen baten bueltan herri bat batzea, herrigintzan eragitea. Baina egiteko horretan beste helburu bati ere erantzungo diote: birziklitzeari: "Orain arte Udalak jartzen zituen banderatzkoak plastikozkoak izaten ziren, eta askok bukatzen zuten apurtuta, lurrean nahiz



Josi Ta Josi taldekoak banderatzkoak josten. AINARA ARGOITIA



Lagun talde bat oihalak neurrira mozten eta bikoteak osatzen. AINARA ARGOITIA

errekan. Hori ere saihestuko dugu".

Mendaroko eskolako zuzendaritzari, ludotekako eta gaztelekuko arduradunei eta Gazte Asanbladakoei ere aurkeztu diete ekimena In Leikekoek, eta batu dira haiek ere proiektura. Oihalak inguratu eta In Leikekoek sortutako ereduaren arabera moztea izango da haien lana, hein handi batean, josteko ardu-

ra Josi Ta Josi taldekoek hartu dutelako momentuan beren gain, baina nabarmendu dute taldean

Udaletxeko hirugarren solairuan elkartzen dira astero lanerakoak, astearte eta asteazkenetan

zabalik dutela atea lagundu nahiko luketen guztiak hartzeko. Kartelak jarri dituzte kalean; bereziki, oihal eske. "Etxean botatzeko daukazuen kotoizko kamisetek, izara maiztuek... denek balio dute, zuri-zuriak ez baldin baldira, behinik behin, herriari kolorea ematea baita kontua", zabaldu dute beren webgunean ere. Oihalak jasotzeko hiru leku zehaztu dituzte: Leire jantzi-denda, Morroskillo estankoa eta Roteta janari-denda; eta pozik daude momentuan izan duten erantzunarekin.

Gaur, astearte, lanean topatu ditugu dozena bat lagun udalategian. Eraikinean sartzerako sentitu dugu josteko makina hotsa eta barbaroa. Gela batera bilduta daude goian jostunak, eta harrerako gelan, oihalak neurrira mozten eta parekatzen ari direnak. Emakumeak dira bat ez beste guztiak. 9 urte ditu gazteenak eta 76 edadetuak, baina denek dute lekua, eta denek ikasten dute elkarrengandik. Antton Igerategi da gaur gizon ezko bakarra, eta klariona hartuta dabil oihalak markatzen, taldeko gaztetxoek moztu ditzaten. Mahaian batutako oihal tontoretik ondo ezkontzen direnak aukeratzen ari dira beste lau bat lagun, orratzak jarrita, jostunei pasatzeko. Erronka handia da, eta jakin badakite asko uste gabe iritsiko dela aurrean ere uztailearen 24a, baina ez dute horrek estutzen. "Aurtengo, ahal duguna egingo dugu, eta ezin badugu helburua osatu, datorren urterako amaituko dugu", bota du Marije Arakistainek, taldeko beteranoetako batek. Ezin esan, baina, martxa txarra daramatenik. Gaur, 200 josi dituzte bi orduan, eta gaztetxoek, behintzat, sinistuta daude lortuko dutela.

Barrena
BATZEN GAITUENA

barrena.eus/egin-kide

eduki bereziak, zozketak,
deskontuak, abantailak

egin zaitez
Barrenakide!

